

Hurbilketa kritikoak 2030 Agendara begirada global-lokal batetik





Koordinazioa:

Zigor Uribe-Etxebarria

Proiektuen, Eraginaren eta Sareen Arloko koordinatzailea, Alboan Fundazioa.

Maximiliano Koch

Irakasle eta ikertzailea, Deustuko Unibertsitatea.

Guillermo Otano

Eragin Arloko teknikaria, Alboan Fundazioa.

Eskertza:

Alboan Fundazioak eta Deustuko Unibertsitateak eskerrak eman nahi dizkiete argitalpen hau ahalbidetu duten pertsona eta erakunde guztiei.

Lehenik eta behin, eskerrik asko beren gogoetak argitalpen honetara ekarri dituzten egileei. Haien testuek funtsezko gako batzuk eskaintzen dizkigute 2030 Agenda ikuspegi kritiko, posizionatu eta eraldatzaileetatik birpentsatzeko, eta gaur egun mundu osoan nahiz tokian-tokian ditugun erronkei buruzko eztabaida aberasten dute.

Neurri handi batean, proiektuko lantalde tematikoen aberasgarri ere izan da testu horien irakurketa, eta eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, hainbat eremutatik haietan parte hartu duten taldekideei. Administrazio publikoko, akademiako, sektore pribatuko eta gizarte zibileko pertsonen arteko lankidetzak funtsezkoa izan da jakintzak, esperientziak eta proposamenak hainbat geografia eta ikuspegitatik lotzeko.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziari, Donostiako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari "Euskaditik Mundura: euskal 2030 Agendara hurbilketa kritikoa begirada global batetik eta Giza Eskubideen ikuspegitik" proiektua finantzatzeagatik (PRO-2023K3/0014).

Argazkiak:

Azala: Agustus Ekka Sj.

Barrukoak: Agustus Ekka Sj, Red Jesuita con Migrantes-Centroamérica, Iván Benítez, Concordia Moldova, CEPAG, Irene Galera, Laura Lora, SJPAM, SAIFE eta Alboan.

www.alboan.org

www.euskaditikmundura.eus

Argitalpena: 2025eko maiatz



Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Lana aske kopia, banatu eta jendaurrean komunikatu daiteke, baldin eta egileza aitortzen bada eta ez bada xede komertzialetarako erabiltzen. Ez da onartzen lan hau aldatzea, eraldatzea edo lan honen ondoriozko beste lanik sortzea. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

Aurkibidea

Hitzaurrea	04
Egileen zerrenda	07
1. Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH): hurbilketa bat giza eskubideetatik eta justizia sozialetik. Felipe Gómez Isa	09
2. Publikoa eta pribatua demokratizatzea justizia sozialaren berme gisa. Joaquín Mejía Rivera	14
3. Hezkuntza inklusibo eta ekitatiboaren erronka, Europatik eta Euskaditik. Concepción Maiztegui Oñate	17
4. Begirada bat, herri-hezkuntzatik, nazioarteko hezkuntza-orientabideei buruzko egungo eztabaidari ikuspegi globalean. Beatriz Borjas-Borjas	24
5. Genero-desberdinkeria ez da naturala. María Silvestre Cabrera	29
6. 5.GJHa: erronka globalak afrikar begirada batetik. Caddy Adzuba	36
7. GJHen lokalizazioaren erronkak, ingurumenaren ikuspegitik. Maximiliano Koch	44
8. Bizitzaren jasangarritasuna: nola egin inor atzean ez uzteko?. Luiz Felipe Lacerda	51



Hitzaurrea

2015ean, nazioarteko komunitateak adostasunez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Agendaren Garapen Jasangarriko 17 Helburuek (GJH) eta 169 jomugek anbizio handiko esparru bat osatzen dute, gure garaiko erronka premiazkoenei aurre egiteko: pobrezia, desberdintasuna, krisi klimatikoa, gizarte-bazterketa eta egiturazko indarkeria. Mundu osorako kontratu sozial berria antolatzeko saiakera gisa sortua, unibertsala eta integratzailea izan nahi du, eta garapenaren hiru dimentsioak orekatu: hau da, ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa.

Hala ere, ia hamarkada bete igaro da onartu zenetik, eta 2030a gero eta hurbilago dugularik, kritikoki berrikusi behar dira Agendaren ibilbidea, ezarpena eta eraginkortasuna. Esparru neutrala edo soilik teknikoa izan beharrean, GJHak eztabaidapeko espazio bat dira; bertan, aurkatz aurka daude narratiba hegemonikoak eta horiei esanahi berriak eman nahi dizkieten ahotsak. Ildo horretan, GJHak statu quo iraunarazteko erabil daitezke, edo, aitzitik, bazterretatik haiez jabetu gaitezke, eraldaketa-prozesu sakonak bultzatzeko. Lur emankorra da, bada, hausnarketa kritiko bat egiteko, poszionatua, plurala, eta Hegoalde Globalaren errealitateetan errota.

Hain zuzen, helburu horrekin sortu da argitalpen hau. Akademiak eta gizarte-erakundeek landutako zortzi testuren bidez –lau Deustuko Unibertsitateko ikertzaileek idatziak, eta lau Alboan Fundazioaren erakunde aliatuetako kideek–, ikuspegi glokaletik jorratzen dira justizia sozial garaikiderako muinekoak diren lau gai: giza eskubideak, hezkuntza, genero-berdintasuna eta gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasuna. Ardatz tematiko bakoitzak argi uzten du zer muga dituen 2030 Agendak gaur egun, adierazi eta ezarri den moduan, eta, aldi berean, hura oinarritik aberasten duten interpretazio-esparruak eta esperientzia praktikoak eskaintzen ditu.

Giza eskubideei eta justizia sozialari buruzko blokeak azpimarratzen du GJHak ezin direla ulertu giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen corpus juridikotik kanpo. Agendak printzipio jakin batzuk aipatzen baditu ere –ekitatea, diskriminaziorik eza edo parte-hartzea, kasurako–, ez du estatuen legezko betebeharrak ezartzen dituen arautegi argirik. Felipe Gómez Isak eta Joaquín Mejías, haien ekarpenetan, planteatzen dute nola garapenaren erretorika pobrezia, indarkeria eta bazterketaren egiturazko kausak despolitizatzen irits daitekeen, eta partaidetzazko justizia birbanatzaile eta eraldatzaile bat proposatzen dute, eremu publikoa zein pribatua demokratizatuko dituen.

Hezkuntza eraldatzailearen blokean, Concepción Maiztegik eta Beatriz Borjas-Borjasek kritikoki aztertzen dute 4. GJHa. Euskaditik nahiz Latinoamerikatik, biek ala biek zalantzan

jartzen dute hezkuntzaren teknokratizazioa, eta heztearen ahalmen emantzipatzailea nabarmentzen dute. Errendimenduari begirako eredu estandarizatuen aurrean, hezkuntza kritiko, posizionatu eta dialogikoa defendatzen dute; jakintzak bateratzeko, benetako inklusiorako eta ekintza kolektiborako espazioak gaituko dituen eredu bat. Testu horietan, herritartasun globala eta etorkizun justuak eraikitzeke tresnatzat hartzen da hezkuntza, eta ez enplegarritasuna edo lehiakortasuna hobetzeko bitarteko soiltzat.

Genero-berdintasuna lantzean, aintzat hartzen da testuinguruen arabera forma desberdinak hartzen dituen erronka globala dela, eta arau-esparruetan aurrera egin den lekuetan ere egiturazko desberdintasunak daudela. Bere testuan, María Silvestrek desberdintasunaren erro soziokulturalak aztertzen ditu eta berdintasun formalaren ameskeriaz ohartarazten du; Caddy Adzubak, berriz, Afrikako gatazka armatuaren, pobreziaren eta marjinazioaren testuinguruetan dauden milioika emakumeen errealitatea ikusarazten du. Bi-biek proposatzen dute 5. GJHa ikuspegi feminista eta interseksional batetik birpentsatzea, esperientzien aniztasuna aintzat hartuz eta emakumeen zaintza, autonomia eta agentzia politikoa politika publikoen erdigunean kokatuz.

Gizarte eta ingurumeneko jasangarritasunaren ardatzak, berriz, kritikoki begiratzen die 2030 Agendaren ekologia arloko tentsio eta kontraesanei. Bere testuan, Maximiliano Kochek aintzat hartzen ditu GJHak euskal testuinguruan lokalizatzeko eman diren aurrerapausoak, baina lorpen partzial horien eta asimetria globalen iraunkortasunaren arteko deskonexioaz ohartarazten du. Luiz Felipe Lacerdak, bere aldetik, irakurketa latinoamerikar bat dakar Brasilgo errealitatekin, antzinako jakintzak, balio komunitarioak eta ongizatearen ordezkoi ikuspegiak bilduz. Bi testuak bat datoz ezin dela jasangarritasunaz hitz egin ingurumen-justiziarik gabe, ezta ingurumen-justiziaz ere, justizia globalik gabe.

Testu guztien azpian ideia nagusi bera dautza: GJHek eragin benetan eraldatzailea izateko, ezinbestekoa izango da horiek berrinterpretatzea, behe-betik jada bestelako modu batzuk eraikitzen ari diren borroka historiko, jakintza kolektibo eta jardunbide sozialetatik. Berezko helburutzat hartu beharrean, tresna kontingente gisa ulertu behar dira; demokratizazio, justizia eta emantzipazio sozialeko benetako prozesuekin artikulatzen badira bakarrik izango dute zentzua.

Proposamen hau “glokala” da –tokikoa globalarekin, akademikoa komunitatearekin, eta instituzionala herritarrarekin lotzen du– eta sinesmen sakon bati erantzuten dio: gure garaiko krisi anitzei aurre egiteko beharrezkoak diren eraldaketak ez dira goitik edo kanpotik soilik etorriko; lurraldeetatik ere sortu behar dira, esanahiak ezbaian jartzen,

ordezko bideak eraikitzen eta beste etorkizun posible batzuk entseatzen ari diren pertsona eta kolektiboetatik.

Hitzaurre honen asmoa ez da eztabaida ixtea, irekitzea baizik, argitalpen honetan jasotako gogoetek elkarriketa, aliantza eta ekintza kolektibo berriak sortzen lagunduko dutelakoan. Izan ere, GJHen benetako balioa ez da eraldaketa ordezkatzeari, ezpada eraldatzeko aitzakia izatea.

Javier Arellano Yanguas

Ikerketako eta Nazioarteko Harremanetako errektoreordea. Deustuko Unibertsitatea

Guillermo Otano Jiménez

Eragin Politikoko Teknikaria. Alboan Fundazioa



© Red Jesuita con Migrantes-Centroamérica

Egileen zerrenda

Felipe Gomez Isa Zuzenbideko lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean (1991), eta Nazioarteko Zuzenbideko doktorea (1997) unibertsitate berean. Gaur egun, irakasle titularra da Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean, eta Bilboko campusean ematen ditu eskolak. Irakas-kuntza, nagusiki, Zuzenbideko eta Gizarte Laneko graduetan ematen du, baita European Master in Human Rights and Democratization masterrean (2000tik haren zuzendaria da) eta Genero Indarkeriako masterrean ere. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa eta Giza Eskubideen Nazioarteko Babesa irakasgaiak ematen ditu, gatzelaniaz eta ingelesez. Bere argitalpenen artean, giza eskubideei, garapenari, globalizazioari eta memoria historikoari buruzko lanak nabarmentzen dira. "Giza eskubideak eta erronka soziokulturalak eraldatzen ari den munduan" ikerketa-taldeko kidea da, eta bi ikerketa-seiurteko ditu aitortuta.

Joaquín Mejía Rivera cum laude doktorea da Giza Eskubideak, Demokrazia eta Nazioarteko Justizia (Valentziako Unibertsitatea) eta Giza Eskubideen Ikasketa Aurreratuak (Madrilgo Carlos III Unibertsitatea) alorretan. Nazioarteko Zuzenbideko eta Nazioarteko Harremanetako Ikasketa Aurreratuen diploma du (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea), eta Humanitateen arloko honoris causa doktoretzarekin saritu dute (José Cecilio del Valle Unibertsitatea). Gaur egun, Hondurasko Jesusen Lagundiko Gogoeta, Ikerketa eta Komunikazio Tal-

deko ikertzailea da, eta Giza Eskubideen aldeko Talde Juridikoaren koordinatzailea.

Concepción Maiztegui Oñate Psikologiako lizentziaduna da, Bruselako Unibertsitateko masterduna, eta Pedagogiako doktorea Deustuko Unibertsitatean. Psikologia eta Hezkuntza Fakultateko Gizarte Pedagogia Saileko irakasle titularra da, Deustuko Unibertsitatean ere. Bere irakaskuntza-jardueraren ardatza Gizarte Hezkuntzako gradua da; besteak beste, Herritarrentzako Hezkuntza, Aisia eta Animazio Soziokulturala eta Hezkuntza, Inklusioa eta Arrazismoa irakasgaiak ematen ditu hor. Ikerketa kualitatiboko metodologiari buruzko doktorego ikastaro bat ere irakasten du. Bere argitalpenek gizartearen eta herritarren parte-hartzeari erreparatzen diote, arreta berezia jarritz kulturartekotasunaren ikuspegian. Kolektibo kalteberak gizarteratzeko eta kulturartekotasuneko proiektuetan parte hartu du. "Esku hartzea: Bizi-kalitatea eta gizarteratzea" ikerketa taldeko kidea da.

Beatriz Borjas-Borjas Letretako lizentziaduna da Genevako Unibertsitatean, eta Hezkuntzako lizentzia Simon Rodríguez Unibertsitate Nazional Esperimentalean. Gizarte Laneko eta Gizarte Ekintzako masterra du, gizarte-politiken analisiko espezializazioan. Beatriz Borjasek 30 urtetik gorako eskarmentua du Venezuelako Fe y Alegríako komunitateetan, prestakuntza-programetan eta ikastetxeetan lanean, eta Nazioarteko Federazioaren hainbat ekimenen buru izan da.

María Silvestre Cabrera Deustuko Unibertsitateko Soziologiako katedraduna da, eta “Deusto Gizarte Balioak” taldeko ikertzaile nagusia; Europako Balioen inkestan Espainia ordezkatzeko duen taldea da hori. Deustuko Unibertsitateko Zientzia Politikoetako eta Soziologiako Fakultateko dekanoa izan da, eta Eusko Jaurlaritzaren Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria. Nazioarteko eta estatuko hainbat ikerketa-proiekturen buru izan da, eta hainbat kargu izan ditu, hala nola Soziologiako Euskal Elkartearen presidentetza eta Espainiako Soziologia Federazioaren presidenteordetza. Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko Berdintasun zuzendaria da. Haren ikerketa-ildo nagusien artean, ikasketa feministak eta genero-ikasketak, eta gizarte-balioen analisiak daude.

Caddy Adzuba kazetaria da, eta Zuzenbideko lizentziaduna Bukavuko Unibertsitate Ofizialean. Radio Okapi lan egin zuen, Nazio Batuen Kongoko Errepublikako Demokratikoko Misioaren (MONUC) irratian. Gaur egun, Kongoko Errepublikako Demokratikoko Komunikabideetako Emakumeen Elkartearen (AFEM) buru da, eta Pélagie Muhigirwa Fundazioa (FPM) sortu zuen, prestakuntza-programen bidez emakume eta neskatuen gizarteratze eta ahalduzko sustatzeko erakunde bat. Prentsa-askatasunaren, bakearen eta giza eskubideen aldeko aktibista ezaguna da, eta, kazetaritzaren bidez, Kongoko emakumeen eta nesken aurkako indarkeriak salatzen ditu. Haren lanak aitortzen ugari jaso ditu; besteak beste, 2014an Elkartasunaren Asturiasko Printzea saria.

Maximiliano Koch Zuzenbideko eta Gizarte Zientzietako ikasketak egin zituen Tucumango Unibertsitate Nazionalean, eta Zuzenbideko doktoretza atera zuen Comillasko Pontifize Unibertsitatean (Madrid), Gatazka Armatuei eta Ingurumenari buruzko ikasketak eginik. Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen Pontifize Unibertsitate Xabiertarrean (Bogota), eta Hezkuntza Masterra, berriz, Institute of Education fakultatean (University College London). Argentinako eta Uruguako Fe y Alegría, Uruguako Unibertsitate Katolikoan eta Pontifize Unibertsitate Xabiertarrean aritu da lanean. Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko irakaslea da, eta unibertsitate horretako 2030 Agenda Batordearekin kolaboratzen du.

Luiz Felipe Lacerda psikologoa Pertsonarteko Psikologiako graduondoduna da, Ekologia Integraleko espezialista, eta Gizarte Zientzietako masterra eta doktoretza egin zituen UNISINOSen. Doktoretza praktikak Coimbrako Unibertsitatean egin zituen, Portugalen. Pernambucoko Unibertsitate Katolikoko irakaslea da, eta Ekologia Integraleko eta Justizia Sozioanbientaleko Laudato Si’ Katedraren koordinatzailea (UNICAP). Ikertzailea ez ezik, Justizia Sozioanbientaleko Luciano Mendes de Almeida Behatoki Nazionaleko (OLMA) idazkari exekutiboa ere bada. Gainera, Ekologia Integralari buruzko lantaldea kudeatzen du Latinoamerikako eta Karibeko Gizarte Zentroen Sarean. Haren lanaren ardatza psikologia sozial eta komunitarioa, ekologia, soziologia, antropologia eta naturaren eskubideak dira, eta ekonomia solidarioan, prozesu sozialetan eta komunitateen garapenean eskarmentua du.

1. Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH): hurbilketa bat giza eskubideetatik eta justizia sozialetik

Felipe Gómez Isa

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25ean aldarrikatutako Garapen Jasangarriko Helburuek (GJH) nazioarteko komunitatearen ibilbide-orria markatu nahi dute, hazkunde ekonomikoa, justizia soziala eta ingurumenaren babesa orekatzeko, mundu batean non pobrezia, desberdintasuna eta degradazio ekologikoa milioika pertsonaren eguneroko errealitatea den oraindik. Neurri handi batean, XX. mendeko 60ko hamarkadan Nazio Batuen Erakundearen (NBE) eskutik hasitako ekimenen jarraipena baino ez da 2030 Agenda.

Nazioarteko komunitateak garapenarekin duen konpromisoa ez da berria: joan den mendeko 60ko hamarkadan hasi zen. Orduan, deskolonizazio-prozesuaren eskutik, hainbat ekimen hasi ziren sortzen Nazio Batuen Gutunaren 1.3 artikuluan agertzen zen nazioarteko lankidetzaren printzipioa aplikatzen saiatzeko. Ordura arte, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren gaiak izan ziren NBEren benetako leitmotiba, baina 60ko hamarkadatik aurrera zabaldu egin zen Nazio Batuen agenda, aurrekoari gehitzen zitzaion kezka berri bati tokia egiteko: garapena sustatzea, batez ere, deskolonizazio-prozesutik sortutako herrialde pobretuena. Konpromiso gero eta handiago horren lehen erakusgarrietako bat izan zen NBEren Batzar Nagusiak *Garapenerako Nazio Batuen Lehen Hamarkada (1961-1970)* onartu zuela. Harrezkero, hainbat ekimen egin dira herrialde pobreenen aurrerapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko. Tamalez, Nazio Batuek garapenerako hiru hamarkada berri aldarrikatu behar izan zituzten, hurrengo hamarkada haietan ezarritako helburuak oraindik betetzetik oso urrun zeudela ikusirik.

2000. urtea iritsi zenean, Nazio Batuek, milurteko-aldaketaren sinbolismoari heldurik, hamarkaden estrategia eten eta garapen-helburu zehatzago eta xeheagoak ezarri zituzten. Orobat, helburu horien ebaluazioa eta jarraipena egiteko adierazle zehatzak ere finkatu zituzten. Milurtekoaren Adierazpena 2000ko irailaren 8an onartu zuen

Nazioen Batzar Nagusiak solemneki. Adierazpen horretan, Nazio Batuek Milurteko Garapenerako 8 Helburu (MGH) ezarri zituzten, 2015. urterako lortu behar zirenak. Hauek ziren helburu horiek: 1. Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea; 2. Lehen hezkuntza unibertsala lortzea; 3. Sexuen berdintasuna eta emakumearen ahalduntzea sustatzea; 4. Bost urtetik beherako haurren heriotza-tasa murriztea; 5. Amen osasuna hobetzea; 6. GIB/hiesari, malariari eta beste zenbait gaixotasuni aurre egitea; 7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea, eta 8. Garapenerako mundu-aliantza bat sustatzea.

Zenbaitek kritikak egin zizkieten helburu horiei, ez zituztelako lantzen pobreziaren eta azpigarapenaren azpian datzan egiturazko kausak¹, ez zutelako barne hartzen estatuek giza eskubideen eremuan dituzten betebeharrak oinarritutako ikuspegirik², eta helburu askotan aurreko konpromisoak leuntzen zirelako benetan, baina egia da, halaber, MGHei estatu askoren eta gizarte zibileko erakunde askoren borondatea biltzea lortu zutela, eta nazioarteko komunitatearen funtsezko helburuetako bat bihurtu zutela pobreziaren aurkako borroka, XXI. mendearen hasiera zalantzarik baina itxaropentsu batean.

MGHen lorpenaren balantzea ez da oso pozgarria; izan ere, nahiz eta aurrerapausoak nabarmenak izan, honako hau azpimarratu du MGHen emaitzak ebaluatzeaz arduratzen den Erakunde arteko Adituen Taldeak: “desberdintasunek bere horretan dira, eta aurrerabidean aldeak izan dira”³.

Garapen kontzeptu konbentzionalean eragin sakona izan du alderdi ekonomikoak, eta Iparralde Globaleko herrialdeen logikei eta interesei jarraituz definitu da⁴; tradizioz, gizarte bakoitzaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera hartu da garapentzat, hazkunde ekonomiko hutsa. Ingurumenari buruzko gogoetak eta justizia sozialarekin eta giza eskubideekin lotutako alderdiak ez ziren joan den mendeko 70eko hamarkadara arte hasi agertzen.

Garapen kontzeptuaren bilakaeraren ikuspegitik, garrantzitsuena honako hau da: Rio de Janeiroko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Konferentziatik (1992) eta Vienako Giza Eskubideen Munduko Konferentziatik (1993) aurrera, garapenaren zati integral bihurtu dira ingurumenaren eta giza eskubideen ikuspegia.

¹ Alfonso Dubois, «La dimensión normativa del desarrollo en la globalización: una visión crítica de los Objetivos del Milenio», *Revista de Dirección y Administración de Empresas*, 13 zk. (2006): 41 eta 42.

² Philip Alston, «Ships Passing in the Night: The Current State of the Human Rights and Development Debate Seen Through the Lens of the Millennium Development Goals», *Human Rights Quarterly*, 27. libk. 3. zk. (2005): 755-829.

³ Nazio Batuek, *Milurteko Garapen Helburuak*. 2015eko txostena, Nazio Batuek, New York, 2015, 3

⁴ Mendebaldeko herrialdeetan sortutako definizio horri erantzuteko, garapena deskolonizatu behar dela defendatzen dute sektore batzuek, eta Hegoalde Globalek sortzen diren beste epistemologia batzuk kontuan hartu behar direla. Ikusi, horri dagokionez, Alicia Bárcena: «La descolonización de la agenda para el desarrollo después de 2015. Hacia una asociación universal para el desarrollo», in José Antonio Ocampo (Arg.), *Gobernanza Global y Desarrollo. Nuevos desafíos y prioridades de la cooperación internacional*, CEPAL-Siglo veintiuno Editores, Buenos Aires, 2015, 115-160 or. Ikus, halaber, Boaventura de Sousa Santos, *Para descolonizar Occidente. Más allá del pensamiento abismal*, CLACSO, Buenos Aires, 2010.

Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) ezartzeko urrats garrantzitsu bat Rio +20 Konferentzia izan zen. Biler hori 2012ko ekainean deitu zen, Rio de Janeiron berriz, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko 1992ko Adierazpenaren hogeigarren urteurrenaren oroimenez. Rion zeuden estatuek ongi zekiten Nazio Batuen garapen-agendari buruz hausnartzen hasi behar zutela, 2015etik harago, orduan amaitzen baitzen MGHak lortzeko epea.

Prozesuari ekarpen garrantzitsua egin zion giza eskubideen, garapenaren, ingurumenaren edo feminismoaren arloko hogeita zazpi GKEz osatutako talde batek. Taldeak, lehenik eta behin, jendearen ahotsak entzuteko espazioak sortzea eskertu zion Nazio Batuetako idazkari nagusiari. Ondoren, giza eskubideak babesteko eta sustatzeko esparru orokorra "GJHen bihotzean" jar zedila gomendatu zuten⁵. Aitortu behar dugu Idazkari Nagusiari bidalitako gutun horrek eragin erabakigarria izan zuela GJHetan azkenean giza eskubideen zeharkako ikuspegia sar zedin, nahiz eta herabeki sartu eta, batzuen ustez⁶, ez behar adina.

Prozesu hori guztia amaitzeko, 2015eko irailaren 25ean GJHak solemneki onartu zituen Nazio Batuen Batzar Nagusiak⁷.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu GJHak ez zirela berez sortu, araurik eta erakunderik gabeko hutsune batean; aitzitik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak ezarritako helburu eta jomuga askoren oinarri irmoa Nazioarteko Zuzenbidetik datozen betebeharrak dira, direla lotesleak, direla *soft law*aren ondoriozkoak.

GJHen alderdi garrantzitsu bat da helburuak eta jomugak osoak eta zatiezinak direla, eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak uztartzen dituztela: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Ikuspegi holistikoki hori oso elementu garrantzitsua da GJHen edukian, baina aitortu behar dugu tirabira handiak daudela garapen jasangarriaren hiru dimentsioen artean. Konpondu gabeko dilema horren ondorioz, kontraesanak agertzen dira 2015ean ezarritako GJHen artean. Hori horrela, praktikan bateratzeko oso zailak dira, batetik, hazkunde ekonomiko iraunkorra sustatzea (8. helburua), pobrezia desagerraraztea (1. helburua) eta herrialde barruko eta arteko desberdintasunak murriztea (10. helburua), eta, bestetik, giza eskubideak babestea, hala nola elikadura izatekoa (2. helburua), bizi-maila egokia izatekoa (3. helburua), hezkuntza jasotzekoa (4. helburua) edo genero-berdintasuna (5. helburua). Ez dugu ahaztu behar sistema ekonomiko nagusiak sortzen duela desberdintasun gero eta handiagoa, pobrezia irekirik; era berean, gaur egungo garapen-eredua dago sufritzen ari garen krisi

⁵ Post-2015 Human Rights Caucus, *The Post-2015 Agenda won't deliver without Human Rights at the Core*, 28 September 2014, en <https://www.cesr.org/post-2015-agenda-wont-deliver-without-human-rights-core/> (acceso el 13 de septiembre de 2022).

⁶ Antonio Cardesa-Salzmán y Antoni Pigrau Solé, «La Agenda 2030 y los ODS. Una mirada crítica desde su aportación a la gobernanza global en términos de justicia distributiva y sostenibilidad ambiental», *Revista Española de Derecho Internacional*, Vol. 69, No. 1 (2017): 283.

⁷ Doc. ONU, Asamblea General, *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*, Resolución 70/1, 25 de septiembre de 2015.

ekologiko larriaren atzean, baliabide naturalen kontsumo intentsiboan oinarritutako hazkunde ekonomikoa lehenesten baitu. Antonio Cardesa-Salzmannek eta Antoni Pigrauk nolabait etsirik adierazi bezala, “jasanezintasuna eta belaunaldien arteko bidegabekeria dira eredu kapitalistaren zutabeak egungo fasean, eta, zutabe horiek zalantzan jarri ezean, litekeena da GJHak... neurri handi batean, kimerak izatea gizaki gehienentzat”⁸. Helburuon birtualtasun praktikoari buruzko gogoeta askotan ageri da osagai hori; hau da, beharrezkoa dela egiturazko eraldaketa bat, baldin eta GJHak errealitate ukigarria izatea nahi badugu. Zentzu horretan, Frantzisko Aita Santuak argi eta garbi aipatzen du “garapen globalaren eredua aldatzeko beharra” bere *Laudato Si* Entziklikan⁹.

GJHen 12. helburua “kontsumo- eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatzeari” buruzkoa da. Izan ere, ebidentziak argi dio gure ekoizpen- eta kontsumo-eredua dela bizi dugun ingurumen-krisi larriaren eragile nagusia. Gainera, eredu horretan desberdintasun handiak daude: herrialde guztiek eta gizarte-talde guztiek ez dute onura bera jasotzen. Beraz, jasanezina izateaz gain, eredu bidegabekeria da. Funtsean, gure ekoizpen- eta kontsumo-moduetan planteamendu etikoak txertatzeko deia egiten du 12. helburuak, eta “naturarekin harmonian dauden bizimoduetarantz” jotzekoa (12.8. jomuga). Adela Cortinaren hitzetan, “kontsumo-modu bat bidezkoa den erabakitzeke lehen irizpidea unibertsalizatu al daitekeen aztertzea da”¹⁰. Ondorioz, egungo egoeran, gure garapen- eta kontsumo-eredua birplanteatu behar dugu ezinbestean, dela justizia sozial globalaren ikuspegitik (belaunaldi barruko dimentsioa), dela ingurumen-justiziaren ikuspegitik (belaunaldien arteko dimentsioa). Konbentzimenduaren etikatik erantzukizunaren etikara igaro behar dugu. Horrek zoritxarrez giza eskubideen arloko eztabaidetatik kanpo egon den dimentsio batean kokatzen gaitu: eskubideen eta betebeharren arteko erlazioan. Berriz irakurtzen badugu Nazio Batuek 1948an onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, ia oharkabean geratu den artikulua bat aurkituko dugu atseginez. Adierazpen Unibertsalaren 29.1 artikulua ari naiz. Xedapen oroigarri horrek honako hau ezartzen du: “gizabanako orok komunitatearekiko *betebeharrak* ditu, komunitatean bakarrik garatu baitezake bere nortasuna libreki eta osoki” (letra etzana gurea da). Kontua da, gaur egungo testuinguruan, belaunaldi artekotasunean oinarrituta interpretatu behar dela betebeharrak buruzko erreferentzia hori. Hau da, egungo belaunaldiak etorkizuneko belaunaldiak dituzten betebeharrak buruzko eztabaida jarri behar dugu mahai gainean. Herritarrok, baita gure bizimodua elikatzen duten enpresok ere, onartu behar dugu erantzukizuna dugula gure kontsumo-maila jasanezinak mantentzeko orduan. Arazoaren parte eta konponbidearen parte garelako jabetu behar dugu.

⁸ *Ibid.*, 283.

⁹ Santo Padre Francisco, *Carta Encíclica Laudato Si sobre el Cuidado de la Casa Común*, 24 de mayo de 2015, para. 194.

¹⁰ Adela Cortina, «Ética del Consumo», *El País*, 21 de enero de 1999, 12. Esta reflexión ha sido ampliada en Adela Cortina, *Por una Ética del Consumo* (Madrid: Taurus, 2002).



2. Publikoa eta pribatua demokratizatzea justizia sozialaren berme gisa

Joaquín Mejía Rivera

Latinoamerika eta Karibea krisi anitzeko eskualde bat da. Pobrezia gutxitzen eta diru-sarrerak banatzen aurrerapausoak egin diren arren, munduan desberdinkeria handienak dituzten lurraldeetako bat da oraindik. Gobernagarritasun demokratikorako egoera paradoxiko eta arriskutsua dakar horrek: demokrazia formalak, pobrezia eta desberdintasunek osatutako triangelu gaiztoan, askatasun politikoak 181 milioitik gora biztanleren gabezia material larriekin uztartzen dira, Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoaren (CEPAL) arabera.

Horri gehitzen badiogu eskualdeak bizi duen segurtasun-krisia, egoera aproposa da herritarrek gero eta desadostasun handiagoa izan dezaten demokraziarekiko, biztanleria-sektore handien bizi-premiak asetzen ez direlako; gizartean onarpen handia izan dezaten proposamen autoritarioek, zeinek askatasunak mugatu nahi dituzten segurtasunaren eta aurrerapen sozialaren truke; eta militarrei gerrarako aurrekontua eta ahalmen zabalak eman dakien. Hori guztia, askotan, lur emankorra da giza eskubideen aurkako gehiegikeriak jazo eta eskema autoritarioak finkatzeko.

Horregatik, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (IACHR) eta Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) hurrenez hurren adierazi bezala, demokraziaren formalitateak –hala nola hauteskundeak– ez dira oinarri nahikoa sendoak, sistema politiko egonkor eta iraunkorrak bermatzeko; izan ere, muturreko pobrezia, desberdintasunak eta gizarte-bazterketa daudenean, zailagoa da sistema politiko horretan funtsezko auresuposizio bat betetzea: pertsonak erabateko herritarrak izatea, “eta berdintasunezko harremanak izanez jardutea eremu publikoan”.

Ondorioz, zalantzan jarri behar da demokraziarik izan al daitekeen, pobrezia- eta desberdintasun-maila handiak daudenez ezin bada egiaz eta baldintza berdinetan parte hartu erabakiak hartzean. IACHR-ren hitzetan, muturreko pobrezia kalte handia egin diezaioke instituzionaltasun publikoari, gezurrezko bihurtzen du herritarren parte-hartzea, eta demokrazia bera desnaturalizatzen du. Demokrazia ezinbesteko baldintza

da eskubide zibil eta politikoen indarra izan dezaten, baina pertsona bakoitzari bere eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak gauzatzeko aukera eman behar dio orobat.

Horrela soilik bermatu ahal izango baita demokraziaren iraupena; izan ere, pertsonak ziur badaude, haien esperientziari esker, hori dela antolamendu politikoko eredurik onena duintasun eta justizia sozialeko baldintzak bermatzeko, “haiek izango dira diktadura tradizionalen eta beste gobernu-molde autoritario batzuen aurkako bermerik onena”. Hala ere, bizitza duinduko duen benetako justizia sozial bat lortzeko, funtsezkoa da bi dimentsiotan egitea demokratizazio-prozesu sakon eta zabal baten aldeko apustua.

Batetik, dimentsio publikoan, eta horrek esan nahi du herritarrek parte-hartze handiagoa izan behar dutela boterearen antolaketan eta funtzionamenduan; eta bestetik, dimentsio pribatuan beharrezkoa da etxea, gorputzak eta familiak historikoki markatu dituzten botere-harreman desparekoak horizontaltasun-plano batean kokatzea, Silvia Federicik adierazi bezala. Koherentzia errepublikanoa izateko, ezin dugu autoritarismoa salatu eta bizitza publikoaren demokratizazioa eskatu, eremu pribatuan zuzenbidezko estatu demokratikoaren helburuak indargabetzen dituzten desberdintasunei eusten bazaie.

Bestela esanda: koherentziaz heldu behar diogu demokraziaren aldeko borrokari, hala arlo pribatuan nola publikoan, eta, Berta Cáceresek adierazi bezala, askotariko dominazio-moduetan oinarritutako diktadurei aurre egin; izan ere, ez da kapitalismo predatzailea soilik, ez da arrazismoa soilik autoritarismoen gorakadarekin indartu dena, “ezpada baita patriarkatua ere”.

Esan dezakegu Norberto Bobbioren jarrera mugatuta geratu zela adierazi zuenean demokratizazio-prozesua ezingo dela erabat gauzatzat jo, gure gizartearen gorenean dauden bi botere-bloke handiak –enpresa eta Estatuko administrazio-aparatua– ukitzen ez dituen bitartean. Izan ere, prozesu horrek arlo pribatua ukitzen ez badu, harreman intimoenetan gertatzen diren zapalkuntzak hautsiz, Francesca Gargallok planteatzen duen bezala, edozein demokratizazio-prozesu “ezinezkoa izango da pertsonen arteko harremanak despatriarkalizatzen ez badira”.

Demokratizazioa eta justizia soziala galarazten dituzten indarkeriak eta diskriminazioak sortzen dituzten egiturak ezabatzeko, funtsezkoa da bi gairen kontzientzia hartzea: lehenik eta behin, Alda Faciori jarraituz, publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa artifiziala dela. Zentzu horretan, pertsonala politikoa dela dioen mantra feministari esker, ikus dezakegu hala esparru publikoan nola pribatuan borrokatu behar dugula demokratizazioaren alde, koherentzia egon behar baita bataren eta bestearen artean. Espazio pertsonal/pribatua eta politiko/publikoa aldatu ezean, ez da emakumeentzat emantzipaziorik egongo, ezta benetako prozesu demokratikorik ere.

Eta, bigarrenik, Ana de Miguelek dioen bezala, “patriarkatua eta haren erakundeak giza desberdintasunaren eskolak dira berez”, eta, hortaz, ezingo da aldatu Estatuaren antolamendu soziala, ez badira eraldatzen pentsamoldeak eta arlo publikoan nahiz pribatuan garatzen den eguneroko bizitza, bereziki, familia patriarkaletan. Germaine Greer eta Aleksandra Kollontai egileek hurrenez hurren planteatu bezala, familia patriarkalarekin amaiturik soilik “emango zaio azkena Estatu autoritarioak beharrezko duen azpiegitura bati”; izan ere, emakumeen berdintasun politikoa eta erabateko independentzia ekonomikoa lortzea bezain garrantzitsua da “famiaren arazoa” konpontzea.

Egiazko demokratizazio-prozesu batek pertsona guztientzako justizia soziala bermatuz, onartu behar da ezin dela politika isolatu, Alda Faciok esan bezala, gizarte baten norakoa erabakitze mekanismo gisa, berdintasunaren, askatasunaren, justiziaren eta elkartasunaren balio demokratikoen argitan, bitartean emakumeek eremu pribatuan diskriminazioak, bazterketak eta indarkeriak jasaten badituzte: indibidualki bizi diren arren, emakumeak gizatasunaz gabetzen dituen sistema kolektibo baten parte dira. “Hortaz, arazo politiko bat da, eta konponbide politikoak behar ditu”.



3. Hezkuntza inklusibo eta ekitatiboaren erronka, Europatik eta Euskaditik

Concepción Maiztegui Oñate

Mundu globalizatu eta askotariko batean, hezkuntzak berebiziko garrantzia du justizia eta elkartasuna bilatzeko orduan. Nazio Batuek 2015eko irailean onartutako 2030 Agendaren ezarpenak ideia hori berresten du. Akordio inplizitu bat da –herrialdeen eta pertsonen arteko kontratu sozial bat–, lankidetzan aritzeko eta etorkizun justuago, ekitatiboago eta jasangarriagoa lortzeko. Zehazki, Garapen Jasangarriko 4. Helburuak (4. GJH) asmo handiko xede bat planteatzen du: hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa lortzea. Konpromiso horrek kulturalki errotuta dauden arau eta printzipio batzuk islatzen ditu. Hezkuntza, giza eskubidea ez ezik, garapen jasangarrirako eta gizartearen ekitaterako funtsezko tresna eta bizi arteko prozesu bat ere badela aitortzen du.

Mundu-mailan, desberdintasunak daude egindako aurrerabidean. Alde handiak antzeman dira eskualdeen eta herrialdeen artean, eta erronka handiak daude kalitateari eta irisgarritasunari dagokienez. Nazio Batuen aurrerapen-txostenak (2020) ez du pozteko arrazoirik ematen. COVID-19aren pandemiak eragina izan du inplementazio-erritmoan, eta, aztertutako 104 herrialdeetatik, bostetik lautan ikaskuntza-galerak ekarri ditu. Kalkuluen arabera, 258 milioi haur eta gaztek hezkuntza-sistematik kanpo jarraitzen dute, eta diru-sarrera txikiko herrialdeetako haurren % 50ek soilik lortzen dituzte irakurketako eta matematikako oinarrizko gaitasunak lehen hezkuntza amaitzean.

Europar Batasunean, 4. GJHaren inplementazioa askotarikoa izan da, estatu kideen arteko desberdintasun historikoak eta sozioekonomikoak direla medio. Lehen eta bigarren hezkuntza jasotzeko aukera nabarmen hobetu den arren, alde nabariak daude oraindik hezkuntzaren kalitatean eta inklusioan. Horiek horrela, Eurydice (2020) txostenaren arabera, Europa hegoaldeko herrialdeek, hala nola Espainiak eta Greziak, zailtasun handiagoak dituzte eskola-uztearen tasa murrizteko. GJHen ildotik, 2021ean, Europar Batasuneko Kontseiluak esparru estrategiko bat onartu zuen hezkuntzan eta prestakuntzan lankidetzan aritzeko, hurrengo hamarkadarako, lehentasun estrategiko

hauek ezarririk: hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea, ekitatea, inklusioa eta arrakasta hobetzea guztiontzat. Kasu honetan, kalitatearen ikuspegia dela bide, etorkizunean arrakasta izateko funtsezkotzat jotzen da oinarritzko gaitasunak eta trebetasunak menderatzea, kualifikazio eta motibazio handiko irakasle eta hezitzaileen eta hezkuntzako beste profesional batzuen babesarekin.

Europar, kultura- eta hizkuntza-aniztasun gero eta handiagoarekin lotutako erronkak hauteman dira. Espainian, esaterako, hezkuntza-sisteman integratzea nabarmendu da arreta kritiko behar duen eremu gisa. Hala ere, duela gutxi egindako txosten batzuek argi utzi dute integrazio-politika guztiek ez dutela eraginkortasun bera, eta emaitzetan diferentzia handiak daudela ikasleen jatorriaren eta maila sozioekonomikoaren arabera. Horrela, PISA txostenak ebaluatutako gaitasun guztietan, atzerritar jatorriko ikasleek puntuazio orokor baxuagoak lortzen dituzte, estatistikoki, bertakoen aldean (INEE, 2023).

EAEn gero eta gehiago dira atzerritar jatorriko ikasleak: hiru hamarkadatan 10 bider handitu da haien kopurua¹¹. Horrek erronka berriak ekarri ditu hezkuntza inklusiboa eta kalitatezkoa sustatzeko eta ezartzeko moduari dagokionez. Hezkuntzara goiz sartzearekin batera, hainbat neurri diseinatu dira egon litezkeen desabantailak kontuan hartu eta orekatzeko. "Ikasle etorkinei arreta emateko I. programak" (2003) errefortzuko irakasleak izatea sustatzen zuen (ikasgelan eta ikasgelatik kanpo). Ikasle kopurua handitu ahala, beste neurri batzuk gehitu ziren, hala nola eskolatzeko-irizpideak, ikastetxean kultura arteko koordinatzailearen figura sortzea, eskola-errefortzu espezifiko programak edo hezkuntza-arrakasta sustatzeko "Eraldatzen" programa ikastetxe publikoentzat¹². Ildo horretan, "Ikasle etorkinei arreta emateko planak (2016-2020)"¹³ atzerritar jatorriko ikasleak hezkuntza-sisteman modu ekitatiboan integratzen zirela ziurtatu nahi zuen.

Beste hezkuntza-politika batzuek ere islatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemak GJHeikin duen konpromisoa; adibidez, "Euskadi-Basque Country 2030 Agenda" eta "Heziberri 2020 Plana". Plan horiek hainbat arlotan aurrerapen esanguratsuak lortu badituzte ere, garrantzitsua da egindako ekintza batzuk eta erronka iraunkorrak ikuspegi kritikoaz aztertzea.

Oro har, askotariko ikasleek hezkuntza jaso ahal izateko egin diren aurrerapenak gorabehera (eskola-uzte goiztiarraren tasak Europako batez bestekoaren azpitik

¹¹ 1994/95 ikasturtean, Euskadiko Lehen Hezkuntza osoan, atzerritar jatorriko 1.084 ikasle zeuden eskolatuta; aldiz, 2022/23 ikasturtean, 13.755era iristen zen zifra hori hasierako etapa horretan soilik (Luna Arcos, 2024).

¹² Ikus Eusko Jaurlaritzaren webgunea: <https://www.euskadi.eus/aniztasunari-erantzuteko-programak/web01-a3hinklu/eu/>

¹³ Hezkuntza inklusiboari eta aniztasunaren erantzunez buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren webgunea: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/aniztasuna/II_Plana_ikasle_etorkinei_arreta_emateko.pdf

baitaude), eta puntuazioak hezkuntza-etapa guztietan hobetu badira ere¹⁴, zenbait ahulgune agertu dira plan horiek gauzatzean. Arazo handienetako bat emaitzen arteko aldea da, eta beste bat hizkuntzaren araberako segregazioa. 4. GJHarekiko konpromisoan aurrera egin ahala, funtsezkoa da hezkuntza-politikek ez erreparatzea hezkuntza jasotzeko aukera hutsari, eta ikaskuntzako aukeren eta emaitzen kalitateari eta ekitateari ere begiratzea. Itxura batean, finantziarioa handitzeaz eta hezkuntzaren nahitaezotasunari eta errefortzuari lotutako neurriak proposatzeaz gain, beste erabaki batzuk ere hartu behar dira: esaterako, eraldaketa digitala ezartzea, irakasle kopurua handitzea eta, batez ere, pedagogiaren eta antolaketaren arloko proposamenak berriz aztertzea. Arartekoaren txostenak (2024) adierazten duen bezala, pertsona kalteberen desabantaileri aurre egitean zentratzen den ikuspegi konpentsatzailea ikuspegi partziala da. Bestela esanda, hezkuntza inklusiboko proposamen zabal batean ezin dira txertatu emaitzetan zentratzen den arrazionaltasun positibista batez sortutako planak.

Emaitza akademikoak eskala handian konparatzen dituzten neurketek eragin sakona izan dute hezkuntzaren arloko politika eta jardunbideetan (Biesta, 2014). Alde batetik, gomendagarria da erabakiak hartzean informazio objektiboa erabiltzea. Bestalde, neurketaren kulturak badu arrisku bat: hezkuntzaren ikuspegia estutu dezake, produktibitateari eta kudeaketara bideratutako “erantzukizun teknikoari” soilik begiratu. Horrela, harreman ekonomikoak izango dira nagusi: familiak eta ikasleak kontsumitzaile bihurtuko dira, eta ikastetxeak hornitzaile.

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeak (4. helburua) eraginkortasun nozioaren ikuspegi zabalagoa eskatzen du, kualifikazioari lotutako balio instrumentaletik harago. Ez dirudi nahikoa denik. Hezkuntza-kalitatearen ikuspegi zabal batek beste bi funtzio hartzen ditu barnean: sozializazioa eta subjektibazioa (Biesta, 2017). Lehenengoak, sozializazioak, espazio sozialtzat hartzen du eskola: guztiona eta guztiontzat erabilgarria, baina ikasle kalteberen bizitzarako ezinbestekoa. Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan “Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planak” adierazi bezala: “Eskola inklusiboak gizarte-gune demokratiko eta parte-hartzaileak eraiki behar ditu, sozialki aberastuak, ikaskuntza erraztu eta elkarrekin bizitzearen, ikastearen, komunikatzaren, elkarrekin harremanak izan, elkarrekin jardun eta gainerako gizarte-taldeetako kideengana hurbiltzearen garrantzia azpimarratuko dutenak” (Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza, 2016, 33. or.).

Emaitzekin eta sozializazioarekin batera, hezkuntzaren hirugarren funtzioa subjektibazioa da; hots, autonomiarako eta pentsamendu kritikorako orientazioa (Biesta, 2017). Gaur egun, arrisku larrian daude gizateriaren etorkizuna eta planetaren bizitza, eta UNESCO (2021), beste erakunde batzuekin batera, hezkuntza-mugimendu bat ari da sustatzen erronka komunei erantzuna emateko, batez ere,

¹⁴ ISEI-IVEIren datuak.



ingurumenaren eta bizikidetzaren arloan. Haren gidalerroei jarraikiz, Herritartasun Globalerako Hezkuntza (HGH) mundu osoarentzat jomuga bihurtu da. Esparru horretan, hainbat ekimen bultzatu dira fenomeno globalak hobeto ulertzen laguntzeko eta, aldi berean, justiziatik eta elkartasunetik ekintza eraldatzaileak sustatzeko (Mesa, 2019). Herritartasun globalaren kontzeptua bera ahaltsua eta emantzipatzailea da, unibertsalista eta plurala delako izatez, baina horrek ez du esan nahi, ezinbestean, ikuspegi eraldatzaile batetik heldu zaionik (Bayón eta Rodríguez Izquierdo, 2024).

Eusko Jaurlaritzak hainbat gizarte-eragilerekin (tokiko gobernuak, hezkuntza-erakundeak, enpresak eta gizarte zibila) elkarlanean egindako ahalegina (H)ABIAN 2030 estrategian islatu da. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia¹⁵ bat da, ikuspegi tokiko eta globala sustatzen duena, eta, norberaren sustraiak galdu gabe, herritartasun globaleko aukerak eraikitzen laguntzen duena. Nazioarteko beste proposamen batzuen ildo beretik –hala nola Hezkuntza Globalerako Europako Adierazpena. Dublingo Estrategia (GENE, 2022)–, estrategia pedagogiko tradizionalak berrikustea planteatzen du, gizarte globalizatu batean funtsezko gaitasunak bultzatzeko. (H) ABIANek emantzipazioarako ikaskuntza hartu du jarduteko eta eraldatzeko gaitasunaren motortzat.

2030 Agendaren interpretazio-esparruak eta herritartasun globalaren nozioa hezkuntza-eremura ekartzeak hainbat abagune irekitzen dituzte arazo globalei irtenbideak eta ordezeko bideak bilatzeko, eta berresteko zer eginkizun betetzen duen hezkuntzak hala gizabanakoak nola gizarteak aldatu eta eraldatzeko. Gaur egun, oraindik erronka handiak daude ezagutza ulertzeko moduari dagokionez: nola erlazioa daitekeen kontzeptu berri batzuekin, narratiba emantzipatzaileak eraikitzen dituzten eta eskola-errendimenduaren helburuari aurre egiten dioten interpretazio-esparru batzuetan, curriculum hegemonikoak eta teknikoak gaindituz eta ikaskuntza-ibilbideen pertsonalizazioa sustatuz (Valdés eta Díaz Barriga, 2019). Gainera, ebidentzia metatuak aditzera ematen du eskola-sistema ez dela beti tokirik onena herritartasuna eta partaidetza ikasteko (Aguado, et al 2018).

GJHak emantzipazioaren eta inklusioaren noziotik txertatzeak planteamendu didaktikoa eraldatzen du. Nabarmendu behar da oraindik ere badagoela erronka bat esparru kontzeptual argiak garatzeari dagokionez, irakaskuntza askotariko ingurune soziokulturaletan, instituzionaletan eta askotariko hezkuntza-mailatan gauzatu ahal izateko (Eurydice, 2024). Egoera horrek eragina du irakasleengan, egunerokoan haiek hartzen baitute inklusioaren ardura beren gain. Politiken eta ikertzaileen arabera, beharrezkoa da ikastetxeen lidergoaren eta koordinazioaren ikuspegi integrala izatea eta hezkuntza-komunitate osoari ematea protagonismoa (familiak, ikasleak, irakasleak eta irakasle ez diren langileak). Egiaztapen horretatik abiatuta, erakunde publikoek

¹⁵ Informazio gehiago nahi izanez gero, webgune hau kontsultatu daiteke: <https://habian-2030.eus/>

eta unibertsitateek komun duten beste erronka bat identifikatu da: etengabeko prestakuntza eskaintzea kulturarteko gaitasunetan, jasangarritasunean eta pedagogia inklusiboan. Proposamen horren helburua da hezkuntza-praktika egokitzea, bat etor dadin ikasgeletako aniztasun gero eta handiagoarekin eta hezkuntza-sistema jasangarri baten eskaerekin.

Laburbilduz, hezkuntzak –hau da, bizi arteko irakaskuntza eta ikaskuntza egituratzeko moduak– funtsezko zeregina izan du, luzaroan, giza gizarteen eraldaketan. Munduarekin konektatzen gaitu, aukera berrietara irekitzen gaitu eta elkarriketarako eta ekintzarako gaitasunak indartzen ditu (UNESCO, 2021). Gaur egun, gizateriaren etorkizunerako arrisku larriei aurre egin behar diegun honetan, gure konpromiso sakona behar duen zeregin bat dugu guztiok: hezkuntza berrasmatzea, erronka komunei aurre egiten lagun diezagun. Inplementazioa kritikoagoa bada eta tokian tokiko errealtateetara hobeto egokitzen bada soilik eraiki ahal izango dugu mundu globalizatu, inklusibo eta jasangarri baten erronkei aurre egiteko prestatuko gaituen hezkuntza-sistema bat.

Erreferentziak:

Aguado, T., Melero, H. S., & Gil-Jaurena, I. (2018). Espacios y prácticas de participación ciudadana. Propuestas educativas desde una mirada intercultural. *Relieve*, 24(2). art. M3.

Ararteko (2023). *Eusko Legebiltzarrarentzako txostena 2023 - Haur eta Nerabeentzako bulegoaren txostena*.

Bayón, I. G., & Rodríguez-Izquierdo, R. M. (2024). Revisión Sistemática sobre Educación para una Ciudadanía Global Transformadora. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social*, 13(1), 171-186.

Biesta, G. (2014). ¿Medir lo que valoramos o valorar lo que medimos? Globalización, responsabilidad y la noción de propósito de la educación. *Pensamiento Educativo. Revista de Investigación Latinoamericana* (PEL), 51(1), 46-57.

Biesta, G. (2017). *El bello riesgo de educar. Cada acto educativo es singular y abierto a lo imprevisto*. SM.

Europar Batasuneko Kontseilua (2021) *Resolución del Consejo relativa a un marco estratégico para la cooperación europea en el ámbito de la educación y la formación con miras al Espacio Europeo de Educación y más allá (2021-2030)*. EBAO 66. zk., 2021eko otsailaren 26a.

Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza (2016). *2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana*. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/aniztasuna/II_Plana_ikasle_etorkinei_arreta_emateko.pdf

Eurydice (2024). *Aprendizaje para la sostenibilidad en Europa: Creando competencias y apoyo a docentes y centros educativos*. Hemen eskuragai: <https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/dc327457-f875-11ee-a251-01aa75ed71a1/language-en>

GENE. Hezkuntza Globalaren Europako Sarea (2022). *Declaración Europea sobre Educación Global hacia 2050 Declaración de Dublín Un marco estratégico europeo para mejorar e incrementar la Educación Global en Europa hacia el año 2050*. Hemen eskuragai: ww.gene.eu.

INEE. Hezkuntza Ebaluatzeko Institutu Nazionala (2023). PISA 2022. *Programa para la Evaluación Internacional de los Estudiantes Informe español*. Madril: Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa.

Luna Arcos, F. (2024). Ikasle etorkinak EAEko hezkuntza-sisteman: hogei urteko ibilbidea. In J. Shershneva Zastavnaia (argtz.). *Bi hamarkada Euskadiko migrazioari eta asiloari buruz hausnartzen* (183-204). Ikuspegi.

Nazio Batuak (2020). *The Sustainable Development Goals Report*. (<https://unstats.un.org/sdgs/report/2020>).

Mesa, M. (2019). La Educación para la ciudadanía global y los objetivos de desarrollo sostenible: Una agenda para la transformación social. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social*, 8(1), 7-11.

UNESCO (2021). *Reimaginar juntos nuestros futuros. Un nuevo contrato social para la educación*. UNESCO.

Valdés, M. G., & Díaz Barriga, F. (2019). La educación por la inclusión: un tema de derechos humanos y de justicia social. *Sinéctica*, (53), 2-4.



© Concordia
Moldova

4. Begirada bat, herri- hezkuntzatik, nazioarteko hezkuntza-orientabideei buruzko egungo eztabaidari ikuspegi globalean

Beatriz Borjas-Borjas

Pedagogia kritikoaren eta herri-hezkuntzaren ikuspegitik, hezkuntzaren eta pedagogiaren eremua gatazkan dagoen eremu bat da. Izan ere, alor horretan aurkatzeko aurka daude gizartearen norakoak bideratu nahi dituzten hainbat indar; beraz, espazio hori etengabe mugimenduan dagoela ulertu behar da, eta bertan nagusitasuna eta kontrola lortzeko lehian daudela hainbat eragile, baita erakundeak ere. Hezkuntzaren dimentsio soziala eta politikoa onarturik, ikuspegi horrek bi emaitza posible ondorioztatzen ditu: gerta liteke hezkuntza-espazioek gizartean dauden desberdintasunak errepikatzea, edo, aitzitik, gune horietan gizartearen desberdinkeriak, bidegabekeria eta zapalkuntzak salatzea, gizarte anitzago, gizatiarrago eta berdinzaleago baten aldeko konpromisoa hartuz, talde baztertu eta kalteberen interesak izanik hala abiaburuan nola jomugan.

Hezkuntza-sistemako eskola-ibilbideak, historikoki, modu linealean garatzen diren ibilbide gisa finkatu dira, ezaugarri hauekin: mailaka antolatuta daude, curriculum gradualak dute, eta ikasketak mailak ikasturtetan banatzen dira. Atzera begiratu eta berreraikitzen baditugu gizarte-sektore behartsuetako haurrak eskolaratzen eta eskolan gutxienez 12 urte betetzen dituztela ziurtatzen ahalegindu diren hezkuntza-esperientziak, oztipo-lasterketa gisa irudika ditzakegu: ikasleek aurrera egin ahala hautespen-prozesu bat gertatzen da, haiei asko sistematik kanpo uzten dituenak. Eskolako desertzioak, porrotak, errepikatzeak, absentismoak eta antzeko fenomenoek agerian uzten duten moduan, badira zenbait faktore intrintseko eta estrintseko, gizartearen sektore ahulak gutxienez zenbat denboraz eskolatu beharko lirartekeen finkatzeko unean kontuan hartu beharko lirartekeenak.

Horregatik, hezkuntzari buruzko nazioarteko eztabaidan, kritikoki aztertu behar dira eskola-forma estandarizatuak, ez badute lortu nahi bezala aukera-berdintasuna eta ikaskuntzaren arloko desberdintasunak birstortu badituzte, argi geratu delarik klase dirudunetako ikasleek emaitza hobeak dituztela klase behartsuetakoek baino, Iparralde eta Hegoalde Globaleko herrialdeen artean ikaskuntza-arrakala handiak dauden bezala. François Dubet¹⁶ soziologo frantsesaren ustez, unibertsalki eratu den eskola-eredua ez da bidezkoa, familien maila soziokulturalak eta diru-sarrerek erabakitzen baitute ikasleek zer lortuko duten. Eta eskola-forma zalantzan jartzean, eskola justua zer den proposatzen du egile horrek: hain zuzen, oztopo-lasterketa horretan galtzaileak hobeto tratatzeko aukera ematen duena, meritua agertzeko era asko ahalbidetu eta, batez ere, gizarte-berdintasunak eskola-berdintasuna sustatzen duela kontuan hartzen duena.

Horiek horrela, “harrera eta inklusio” gune izango diren lurralde-espazioak (ikastetxeak) eratzeari erreparatu behar zaio, non ikasle behartsu eta kalteberenek aukera izango baitute modu integralean garatzeko, ekitate- eta berdintasun-baldintzetan, eratu beharko genukeen gizarte berri, berdinzale eta demokratikoagoa aurreratuz. Horrela, garrantzitsu bihurtzen da hezitzaileen eta hezigaien artean harreman horizontal eta dialogikoak sustatzea, ezagutzak erkatzeko eta erlazionatzeko aukera ematen duten ikuspegi batzuen pean. Ikuspuntu horren arabera, helburu zabalago eta ukiezin batean txertatzen dira oinarritzko irakurmena, idazmena eta kalkulu-gaitasunak: “bizitzarako ikaskuntzak” izenekoa. Helburu horrek, giza eta herritar balioetan hezi behar dela azpimarratu, eta gaitasun teknikoak eta lanerako gaitasunak txikitatik irakastea sustatzen du.

Asmo horiek, jakina, etengabeko gatazkan daude estatu nazionalak eta nazioarteko erakundeek ezarritako hezkuntza-politikekin. Izan ere, curriculum homogeneousoak sustatzen eta prozesuak eta emaitzak estandarizatzen saiatzen dira, gero eta gehiago sistematikoki, eta bateraezinak dira pedagogia kritikoen eta herri-hezkuntzaren oinarritzko printzipioetako batekin: hots, errealitatearen irakurketa kritikoa izan dadila abiapuntua, curriculumak testuinguruaren arabera eta ikasleen interesei erantzunez prestatzeko. Gainera, azken ikuspegi horren arabera, ikasleen ikasketa-emaitzak ebaluatzea ez litzateke nahikoa izango hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko. Egokiagoa da “kalitatea hobetzeko sistema bat” zirriborratzea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak ez ezik, beste alderdi batzuk ere kontuan hartuko dituen: nolakoa den prozesu horiek ahalbidetzen dituen hezkuntza-kudeaketa, zer harreman ezartzen dituen ikastetxeak ingurunearekin, eta zer bizikidetzak- eta herritartasun-prozesuak sustatzen dituen hezkuntza-eragileen artean.

Bestalde, askotariko kalteberatasun-egoeretan bizi diren ikasleen eskola-

¹⁶ François Dubet (2015) “Casi todas las escuelas son injustas” Entrevista en El Espectador. <https://www.elespectador.com/educacion/casi-todas-las-escuelas-son-injustas-francois-dubet-article-569824/>



ibilbideak hauskorrak badira, beharrezkoa da hezkuntza-ibilbide paraleloak edo konpentsatzaileak edo egokituak edo integratuak diseinatzea, eta, horrela, “ontzi komunikatuak” sortzea hezkuntza-modalitate formal, ez-formal eta informalen artean, guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatu ahal izateko, tradizioz eskola-hezkuntzat hartu izan dugunaren aukerak eta mugak zabalduz. Ikuspegi holistikoa horrek hezkuntza-sistemaren mailakako eta adinaren arabera ikuspegi zatikatua gainditzen du, eta “bizi arteko ikaskuntza” nozioaren ardatz nagusia izango litzateke. Modalitateak isolatuz eraiki diren eredu instituzionalei aurka egiten die, erantzun asertiboak ematea baita asmoa, dela hezkuntza-larrialdietan, dela gaur egungo ikaskuntza-krisietan.

Era berean, munduan gizadi osoak landu behar dituen erronkei begira jartzen garenean –klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera eta muturreko gertaera meteorologikoak– garapen jasangarriko hezkuntzaren norainokoa birplanteatu beharrean gaude; izan ere, baliabideak agortzen eta, beraz, planeta eta ekosistema suntsitzen lagundu duten teknologiak erabiliz ekoizpena eta kontsumoa etengabe hazarazi nahi duen ikuspegi zibilizatorioa erabat aldatzea da kontua. Hezkuntzari dagokionez, gizakiok naturarekin eta teknologiarekin eratu dugun harremana berreraikitzea litzateke erronka; hau da, Frantzisko aita santuaren gonbidapenari jarraikiz Hezkuntza Itun Global bat sustatzea (2019), planetaren etorkizuna eraikitzeke moduari buruz guztion artean hitz egiteko. Horrela, ekologia integralaren ikuspegia barne hartzen duen hezkuntza bat susta litzateke.

Beste erronka global bat, aurrekoa bezain larria, munduko herrialde gehienetan demokraziek bizi duten atzerakadarekin eta autokraziek bizi duten gorakadarekin lotuta dago. Giza eskubide unibertsialetan oinarritutako mundu-ordena ahuldu egin da, eta populismoa, egia-ostea eta ideien polarizazioa gailentzen dira, hainbat printzipio ukatzen direlarik, hala nola desberdin pentsatzen dutenekin deliberatzea eta eztabaidatzea. Beraz, hezkuntza-erronka global gisa planteatzen da herritartasun kritikoarentzako hezkuntza sustatzea, tokian-tokian eta hurbiletik, munduko testuinguru batean zeinean gobernantza demokratikoa intentsitate txikikoa den eta gatazkak konpontzeko indarkeriazko bideak sustatzen diren.

Azkenik, nazioarteko hezkuntza-politiken agendan, hezkuntzaren finantzaketaren arazoa geratzen dira eztabaidatzeko, baita irakasleen prestakuntza eta irakasle-lanbidearen duintasuna ere. Estatu nazionalen finantza-krisiak hezkuntzarako aurrekontuak murriztu ditu, eta, kasu batzuetan, irabazi-asmozko sektore pribatua indartu da. Ondorioz, desberdinkeria handiak dituzten gizarteetan, zabaldu egin dira hezkuntzako arrakalak. Ziurgabetasun politiko eta ekonomikoko testuinguru horretan, garrantzia hartzen du guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusibo batekin konprometitutako gizarte zibilaren rola. Izan ere, hezkuntza ondasun publikotzat harturik, proiektu hezigarriak egitea sustatzen du, edo berak gauzatzen ditu, herritarren



arteko betebegar politiko horizontal eta solidario gisa, Boaventura de Sousa Santosek adierazitako komunitate-printzipioaren arabera¹⁷. Horregatik, mantendu eta indartu egin behar da programa eta esperientzia hezigarriek osatutako bilbe hori, herri-hezkuntza askatzailearen bitartez gizartea eraldatzeko apustua egin duten gobernu kanpoko erakundeek eta gizarte-mugimenduek lagundu edo sustatua, iraunkortu ahal izan dadin¹⁸.

¹⁷ Bonaventura de Sousa Santos, (1994) "Ciudadanía, subjetividad y emancipación" en Revista El otro derecho, 15. zk., Bogotá. <http://ilsa.org.co:81/node/235>

¹⁸ Federación Internacional de Fe y Alegría (2020) "Reflexión y actualización de la educación popular en Fe y Alegría"

5. Genero-desberdinkeria ez da naturala

María Silvestre

Kapitulu honetan¹⁹, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria unibertsala izatearen arrazoa zein den galdetzen dut eta erantzuten saiatzen naiz, natura alde batera utzi eta kultura ardatzat hartuz; hau da, paradigma konstruktibistatik abiatuta, dikotomia zahar eta kaltegarriak birdefinitu ahal izateko, hala nola eremu pribatua versus eremu publikoa.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria modu askotan eta askotarikoetan islatzen da; denak diskriminazio egoerekin lotuta daude, eta, beraz, emakume gehienek bizitzan ondorio negatiboak dituzte. Genero desberdinkeria haien bizitza pertsonala, anbizioak eta aukerak oztopatu eta baldintzatzen ditu. Desberdinkeria hori eta bere agerpenak unibertsalak dira; hau da, oso zaila da emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria erreproduzitzen ez dituen giza komunitate bat aurkitzea. Ahalegin asko egin dira genero desberdinkeria unibertsala izatearen arrazoa azaltzeko desberdinkeria bera naturalizatu gabe. Naturala izatetik, determinazio biologikotik, haratago doan azalpen bat bilatzen duten ekarpenak, eta, beraz, kultura eta errealtatearen gizarte eraikuntza ardatz dituztenak, oso ugariak dira gizarte teoria feministan, baina ezin dugu esan haren postulatu guzti-guztietan adostasuna dagoenik. Zalantzarik gabe, “emakumea ez da emakume jaiotzen, bilakatzen baizik” esamoldea, Simone de Beauvoirrek sortua (Beauvoir, 1949), funtsezkoa da hainbat esparrutan –familia barruan, gizartean, ekonomian, politikan, akademian, kulturean, landa eremuan, artean, etab.– emakumeen eta gizonen artean dagoen aukera desberdinkeria zergatia bilatzea ulertzeko. Emakume eta gizon izatea sozialki eta kulturalki nola definitu ditugun da gakoa. Desberdintasun batetik abiatuta (dela eraikia, dela biologikoa, hala nola ugalketarekin, hormonekin eta kromosomekin lotutako atributu jakin batzuekin jaiotzea), gure gizarteek desberdinkeria, diskriminazioak eta zapalkuntza esparruak definitzen eta eraikitzen dituzte. Desberdintasun jakin batzuk (sexua, adibidez) desberdinkeria bihurtzeko arrazoa azaltzen jakitea da gakoa. Carol Pateman-i jarraituz (1988), lanaren sexuaren arabera banaketa azalpen faktore

¹⁹ Hemendik abiatuta moldatutako testua: María Silvestre (2023): “Genero desberdinkeria nazioartekoa da, baina ez naturala: kultura vs. natura”, in Julia Shershneva (argtz.): *Dimentsioak desberdinkeria ikuspegitik*, Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua, VIII. kap., 187-205 or.

garrantzitsu bat da, eta faktore horrek eremu pribatu-familiarraren eta eremu publikoaren arteko gizarte bereizketa egitera garamatza. Emakumeak eremu pribatu-familiarrera lotuta geratzen dira; hots, balio sozial eta ekonomiko txikiagoko eremu batera, historikotasuna ukatua duen (Benhabid, 2004), eta, beraz, aldaketa soziala bera ere ukatua duen eremu batera. Sozialki arlo pribatuan harrapatuta egonik, gauza naturala balitz bezala, emakumeei hezkuntzarako sarbidea ukatu zaie (Wollstonecraft, 1792), baita parte-hartze politikorako sarbidea ere (Stuart Mill, 1869; Taylor Mill, 1851). Ilustrazio garaian aldarrikapen horiei ez entzunarena egin zitzairen, eta gaur egun, zenbait herrialdetan, Iranen edo Afganistanen kasurako, ozen egiten ari dira, iraultza feministaren izaera gaindituz gizarte iraultza bihurtu diren matxinada eta aldarrietan (Mahnaz Shirali, 2022), emakumeen egoera eta baldintzak aldatzeko gizarte aldaketa askoz handiago bat behar dela ulertzen dutelako; aldaketa apurtzaile bat, eta, era berean, justua eta beharrezkoa.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria unibertsala da, baina sustrai kulturekoa, eta adierazle objektibo askok erakusten dute: gizarte prozesu batzuk, kontziliazioa edo pobrezia esaterako, feminizatuta daude; lan arloan soldata arrakala dago; badakigu, halaber, hezkuntzan eta lanbideetan bereizketak egiten direla, baita emakumeek botere eta erabaki hartze eremuetan presentzia txikia dutela ere; indarkeria matxista ahaztu gabe, zeina emakume izateagatik erabiltzen den emakumeen aurka eta mota askotakoa izan daitekeen, hala nola jazarpen sexuala eta sexista, sexu erasoak, indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, soziala eta ekonomikoa, edo feminizidio izugarriak. Desberdinkeria horien guztien atzean genero desberdinkeria dago eta ikuspegi intersektionalek aztertu behar dugu (Crenshaw, 1991), konturatzeko ezen beste aldagai batzuk ere (etnia, jatorria, gizarte maila, dibertsitate funtzionala, sexu orientazioa, erlijioa, hizkuntza, etab.) desberdinkeria hori azaltzeko bektoreak direla.

Mundu mailan, Genero Desberdinkeria Indizea (GDI) kontsultatu dezakegu, Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) 2010eko Giza Garapenari buruzko Txostenean jasoak. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak ezak herrialde batean eragiten duen lorpenen eta aukeren galera aztertzen du indize horrek. Herrialdeen arabera genero desberdinkeria 2019ko indizeari erreparaturik gero, rankingean kokapen onena dutenak Norvegia, Suitza, Alemania, Irlanda, Hong Kong, Islandia, Australia, Suedia, Singapur eta Herbehereak direla ikusiko dugu. Bestalde, genero berdintasunari dagokionez kokapen okerrean dutenak Niger, Afrika Erdiko Errepublika, Txad, Hego Sudan, Burundi, Mali, Eritrea, Burkina Faso, Sierra Leona eta Mozambike dira. Espainiak 0,78ko puntuazioa dauka; horrek munduko rankineko 25. postuan kokatzen du, eta Europar Batasuneko 8.ean.

Nazioarteko beste indize bat ere kontsultatu dezakegu, Munduko Ekonomia Foroaren Genero Arrakalaren Indize Globala, zeinak osasun, hezkuntza, ekonomia eta politika

arlotan emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakala neurtzen duen. 140tik gora herrialdetan emakumeen eta gizonen artean baliabideak eta aukerak nola banatzen diren erakusten du indize horrek. 2022ko Genero Arrakalaren Indize Globalaren datuek (Expansión, 2022) Islandia kokatzen dute berriz ere lehen postuan; ondoren, Finlandia eta Norvegia datoz. Rankingaren azken postuetan Txad, Pakistan eta Yemen daude, emakumeen eta gizonen artean desberdinkeria handienak dituzten herrialdeak. Indize hori, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria neurtzeko sortutako gehienak bezala, dimentsio anitzekoa da, eta honako ardatz hauek ditu: partaidetza politikoa (erabakiak hartzeko egituretako ordezkariak), hezkuntza (oinarrizko eta goi mailako hezkuntza mailatarako sarbidea), partaidetza ekonomikoa (soldatak, parte-hartzea, enplegu gaituak) eta osasuna eta biziraupena (bizi itxaropena eta gizon-emakumeen proportzioa).

2013tik, Genero Berdintasunerako Europako Institutuak (EIGE) genero berdintasunaren indizea kalkulatu eta aurkezten du aldian behin. Indize hori Europar Batasunean (EB) genero berdintasunean egiten den aurrerapena neurtzeko tresna bat da, institutuak berak garatua. Sei eremu nagusi (Enplegua, Dirua, Ezagutza, Denbora, Boterea eta Osasuna) eta bi eremu gehigarri (Emakumeen aurkako indarkeria eta Desberdinkeria intersektionalak) soziologikoki eta estatistikoki definituz (31 adierazle) eraikitzen da. Indizearen balio handiena 100 da eta balio txikiena 0. Indizearen bidez, hobekuntzak behar dituzten arloei ikusgarritasun handiagoa emateko asmoa dago, eta, azken finean, arduradun politikoei genero berdintasunerako neurri eraginkorrak diseinatzeko laguntzekoa (EIGE, 2022).

2022an berriz kalkulatu da indizea. EBko batez besteko balioa 68,6koa da eta Suedia da liderra, 83,9 punturekin; ondoren, Danimarka (77,8), Holanda (77,3), Finlandia (75,4) eta Frantzia (75,1) daude. Espainia seigarren tokian dago (74,6 puntu). Rankingaren azken postuetan Hungaria, Errumania eta Grezia daude, 55etik behera punturekin.

Eremu nagusiak alderatuz gero, Europar Batasuneko herrialdeek puntuaziorik baxuena boterea aldagaian dutela ikusiko dugu: batez beste 57,2 puntu. Hiru botere mota aztertuta, politikoa (60,2), ekonomikoa (52,1) eta soziala (59,9), puntuazio baxuena botere ekonomikoan du EBk.

Nazioarteko indizeek genero berdintasunaren, ongizatearen eta giza garapenaren arlotan izandako lorpenen arabera sailkatzen dituzte herrialdeak eta sailkapen horietan Eskandinaviako herrialdeak dira buru; hau da, unibertsaltasun printzipioan oinarritutako ongizate estatuak dituzten herrialdeak. Benetako berdintasun eraginkor bat lortzeko ganorazko apustuak egin nahi baditugu, ezin dugu alde batera utzi eredu politiko eta sozioekonomikoen eragina, ezta horien oinarri diren balioena ere (konfiantza, kapital soziala, partaidetza) (Halman et al., 2022)



ElGEren arabera, indizeak erakusten duenez –Europar aplikatuta–, egungo erritmoan ia hiru belaunaldi beharko dira genero berdintasuna lortzeko, eta COVID-19ak aurrerapena are gehiago moteltzeko potentziala du (EIGE, 2022). NBE-Emakumeak agentziak ere antzeko pronostikoa egin du, eta, dioenez, gaur egungo erritmoan 300 urte beharko dira munduan genero berdintasuna lortzeko. Bere azken txostenetako baten arabera, “286 urte beharko dira lege babesaren arloko arrakalak ixteko eta lege diskriminatzaileak ezabatzeke; 140 urte, berriz, lantokiko botere eta lidergo postuetan berdintasunezko ordezkaritza lortzeko”. (NBE, 2022).

Zeintzuk izan daitezke gai honetan aurrerapausoak motelak izatea azaltzen duten arrazoi nagusiak? Desberdinkeria nabarmena dela eta oso aztertuta dagoela, hainbat datuk bermatzen dutela, eta bai erakundeak, bai legeria egoera iraultzen saiatzen ari direla kontuan hartuta, zaila da azaltzea zergatik diren hain etsigarriak benetako berdintasun eraginkorra lortzeko buruzko iragarpenak. Erruaren zati handi bat “berdintasun itxurak” du; horren ondorioz, herritarren zati handi batek genero berdintasuna lortutzat ematen du, ez legez bakarrik, baita praktikan ere.

Ezinbestekoa da arlo publikoa, demokrazia, birdefinitzea, emakumeek tradizioz egin izan dituzten jarduerak barne hartu eta haiei balioa eman ahal izateko. Indarkeria matxista agora publikora eramateko eta saihestu, arreta eman eta babesteko legeak egin eta bitartekoak sortzeko gai izan garen bezala, zaintza lanak arlo publikora eramanez, balioztatu eta emakumeen eta gizonen arteko ardurakidetasuna sustatzeko gai izan behar dugu, merkatua, komunitatea eta hirugarren sektorea tartean sartuz eta azken ardura sektore publikoaren esku utziz. Horrek eremu publikoa birdefinitzea ahalbidetuko digu (Pateman, 1988), eta zaintza herritarren eskubide gisa (“herritartasuna”) aitortzeko pausoak ematea, erabat gauzatzeko baldintzak sortzen joateko.

Berdintasunaren arloko lorpenak ezegonkorrak izan ohi dira, lurzoru labainkorra izaten dute. Hala, eztabaida bat itxita dagoela eta eskubide bat aitortuta dagoela ematen duenean, mugimendu feministak eragindako aldaketekiko erreakzioa, askotan, bortitza da, gaingidutako eztabaidak berriro irekitzen dira eta lortutako adostasunak apurtzen. Susan Faludik (2006) “emakumeen aurkako gerra deklaratu gabea” deitu zion horri. Edozein aurrerapen egiteak aldaketa bat dakar, eta aldaketek erresistentziak eragiten dituzte interpelatuta eta auzitan jarria sentitzen den gizarte, harreman, familia, politika eta ekonomia ereduaren aldetik. Duela gutxi, Espainian, eskuin muturrak indarkeria matxista ukatu du, eta berdintasun politikak egitea eta politika publikoan ikuspegi feminista izatea zalantzan jarri dira. Arriskurik handiena diskurtso horiek orokortzea da. Pippa Norris politologo iparramerikarrak “oniritzi eremu” deitu dio horri eta muturreko diskurtsoek, beste aukera moderatuago eta demokratikoago batzuen zentsura edo erantzunik jaso gabe, gizartean orokortzen direnean gertatzen da.

Dena den, gizarte aldaketak generoaren behar praktikoaren edo generoaren interes estrategikoen ondorio izan daitezke, Maxime Molyneux-ek (1985) egindako bereizketari jarraituz. Caroline Moser-en ustez (1989), plangintzaren ikuspegitik, interesak “lehentasunezko kezka” gisa defini daitezke; beharrak, berriz, “kezka horiek asetzeko bitarteko” gisa. Behar praktikoak honela definitzen dira: emakumeek lanaren generoaren arabera banaketaren ondorioz esleitu zaizkien rolak betetzeko duten interesetik eratorritakoak. Eta horiek asetzeko politiken helburuak honako hauek dira: emakumeen eta haien familien bizi baldintza materialak hobetzea, etxebizitza, ura, elikadura, seme-alaben hezkuntza eta osasuna, diru sarreraren sorrera eta komunitatearen esparruko oinarritzko zerbitzuak eskuratzeari dagokienez (Murgialday, 2000). Interes estrategikoei erantzuten dieten aldaketek erreakzio handiagoa sortuko dute; izan ere, genero desberdinkeria betikotzen dituen ereduak, lanaren sexuaren arabera banaketan oinarritua, zalantzan jartzen dutenak dira.

Nahiz eta hainbat erresistentzia eta zailtasun aurre egin behar izan, berdintasunaren arloan aurrera egin beharra dago. Genero ikuspegi intersektional batetik egin behar dugu, emakumei buruz pluralean hitz egin eta ahultasun egoera askotariko eta konplexuak ikusarazi ahal izateko. Adinak, jatorriak, gizarte klaseak, sexu orientazioak, dibertsitate funtzionalak, erlijioak, hizkuntzak, eta abar emakumeen bizitzan eragina dute eta genero desberdinkeria sufritzeko modu desberdinak sortzen dituzte. Ikerketak, politika publikoak eta gizarte mobilizazioak aniztasun horretaz jabetu behar dute.

Bibliografia

- Beauvoir, Simone (1949) *Le Deuxième Sexe*, Gallimard.
- Benhabib, Sheyla (2004) *The Rights of Others*, Cambridge University Press.
- Crenshaw, Kimberlé W. (1991) *Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence against Women of Color*. Stanford Law Review, 43 (6)
- EIGE- European Institute of Gender Equality [Genero Berdintasunaren Europako Institutua] (2022). <https://eige.europa.eu/gender-equality-index/about>
- Emakunde (2021) *Zifrak 2021. Emakumeak eta Gizonak Euskadin*, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritza. <https://www.emakunde.euskadi.eus/zifrak/webema01-contentservi/eu/>
- EUSTAT(2019) Genero berdintasunaren indizea. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0019800/ti_euskal-aeko-genero-berdintasunaren-indizeak-hobera-egiten-jarraitzen-du-eta-100etik-731-puntutan-dago-/not0019893_e.html
- Halman, Loek; Reeskens, Tim; Sieben, Inge and van Zundert, Marga (2022) *Atlas of European Values. Change and Continuity in Turbulent Times*, European Values Series. <https://openpresstiu.pubpub.org/pub/atlas-evs/release/5>
- Expansión (2022) Índice de Brecha Global de Género, Datosmacro.com <https://datosmacro.expansion.com/demografia/indice-brecha-genero-global>



© Irene Galera

Ikuspegi (2022) Begirada 84. Atzeritar jatorriko biztanleak EAEn 2022. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan84eus.pdf>

Lanbide (2022) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren perfila. <https://www.lanbide.euskadi.eus/diru-sarrerak-bermatzeko-errentaren-onuradunen-perfila-auzoaren-arabera-2022/weblan00-estudiosyestadisticas/eu>

Shirali, Mahnaz (2022) DeustoForum-en emandako hitzaldia, Deustuko Unibertsitatean. <https://blogs.deusto.es/viviendodeusto/2022/12/19/mahnaz-shirali-la-comunidad-internacional-debe-parar-las-masacres-contr-la-poblacion-en-iran/>

NBE (2022). *Noticias ONU. Mirada global Historias humanas* <https://news.un.org/es/story/2022/09/1514031>

Molyneux, Maxime (1985) Mobilization without Emancipation? Women's Interests, State and Revolution in Nicaragua, *Feminist Studies*, 11, libk., 2. zk.

Moser, Caroline (1989) Gender Planning in the Third World: Meeting Practical and Strategic Gender Needs, *World Development*, 17. libk., 11. zk.

Moss-Racusin, Corinne A., Dovidio, John F., Brescoll, Victoria L. and Jo Handelsman (2012) Science faculty's subtle gender biases favor male students, *Princeton University*, 109 (41) 16474-16479. <https://doi.org/10.1073/pnas.1211286109>

Murgialday, Clara (2000) Género, Intereses y necesidades de, en: Karlos Pérez de Armiño (argtz.). *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Icaria. <https://www.dicc.hegoa.ehu.eus/listar/mostrar/112>

Norris, Pippa (2009) *Derecha radical. Votantes y partidos políticos en el mercado electoral*. Madrid: Akal.

Pateman, Carol (1988) *Sexual Contract*, Polity Press.

Stuart Mill, John (1869) *The Subjection of Women*, Open Domain, British Library.

Taylor Mill, Harriet (1851) *The Enfranchisement of Women*, The Westminster Review.

Wollstonecraft, Mary (1792) *A Vindication of the Rights of Woman: with Strictures on Political and Moral Subjects*, Public Domain, British Library.

6. 5.GJHa: erronka globalak afrikar begirada batetik

Caddy Adzuba

I. SARRERA

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda anbizio handiko ibilbide-orri bat da, hemendik 2030era mundua eraldatzeko. Nazio Batuen 70. Batzar Nagusian (2015eko irailaren 25ean), 193 estatuk garapen-programa berri bat sortzea adostu zuten, «Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda» izenburupean. Garapen Jasangarrirako 17 Helburu dira (GJH), eta 169 jomuga integratu eta bereizezin hartzen dituzte barnean. Ordura arte, munduko liderrek ez zuten inoiz hartu konpromiso kolektiborik halako ekintza-programa zabal eta unibertsala aurrera eramateko²⁰.

Helburu horien artean, 5. GJHa neskatoen eta emakumeen ahalduztzeari buruzkoa da bereziki. Emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria desagerrarazteaz gain, alor ekonomiko, sozial eta politikoan eskubide berberak dituztela bermatu nahi du. Era berean, 16. GJHak genero-ikuspegia txertatzeko aukera ematen du, inklusioa sustatu nahi duten eta emakumeen aldeko neurri positiboak eskatzen dituzten politiketan²¹.

2025eko irailaren 25ean, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren hamargarren urteurrena ospatuko du munduak, baina, zoritxarrez, moteltasun-kutsu berezi batekin, helburuak lortzeari dagokionez. NBE Emakumeak erakundearen arabera, 5. GJHko adierazleen % 15,4 soilik doaz «bide onetik». Erakunde horrek salatzen duenez, egungo erritmoan 300 bat urte beharko dira haur-ezkontza desagerrarazteko; 286 urte babes juridikoaren arloko hutsuneak bete eta lege diskriminatzaileak ezabatzeke; 140 urte emakumeak berriro ere maila berean ordezkatzuta egon daitezten lantokietako botere- eta lidergo-postuetan, eta 47 urte estatuetakoa parlamentuetan ordezkaritza berdina lor dezaten²².

Gogoan izan behar da genero-berdintasuna oinarritzko giza eskubidea dela oraindik

²⁰ Ikus NBen 70/1 Ebazpena: https://unctad.org/system/files/official-document/ares70d1_es.pdf

²¹ https://focus2030.org/Objectif_de_developpement_durable_no5_Egalite_entre_les_sexes

²² <https://www.unwomen.org/es/news-stories/explainer/2022/09/explainer-sustainable-development-goal-five>

mundu osoan. Genero-berdintasuna funtsezkoa da mundu justuago eta garatuago baterantz aurrera egin nahi badugu. Ezinezkoa da GJHak lortzea, biztanleen erdiak, emakumeak, bazterrean uzten badira. Aurrerapauso batzuk eman badira ere, 2030 Agendak ez ditu lortuko bere helburuak, mundu osoan ez badira premiazko neurri batzuk hartzen, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko politika espezifiko eta sektore anitzeko bat sustatze aldera.

II. GENERO-BERDINTASUNAREN ETA EMAKUMEEN AHALDUNTZEAREN EGOERA GAUR EGUN

II.1. La participación política de la mujer

Emakumeen partaidetza politikoa nabarmen hobetu da azken hamarkadetan, baina aurrerabidea desberdina izan da munduko hainbat eskualdetan. NBE Emakumeak erakundearen arabera²³, 2025eko urtarrilaren 1ean, ministerio edo arlo politiko espezifikoak zuzentzen dituzten kabinete-kideen % 22,9 ziren emakumeak. Emakumeek bederatzi herrialdetan soilik betetzen zuten ministerio-karguen % 50 edo gehiago. Gainera, 18 herrialdek besterik ez zuten emakumezko estatuburua, eta 17k gobernuburua.

Estatuetako parlamentuetan, emakumeen proportzioak etengabe egin du gora. Gaur egun, mundu osoko legebiltzarkideen % 27,2 dira emakumeak, 1995ean erregistratutako % 11ren aldean. Hala ere, sei herrialdek bakarrik lortu edo gainditu dute genero-parekotasuna ganbera legegileetan: Ruanda (% 64), Kuba (% 56), Nikaragua (% 55), Andorra (% 50), Mexiko (% 50) eta Arabiar Emirerri Batuak (% 50). Gainera, Europan, Latinoamerika eta Kariben, Afrikan eta Asia-Pazifikokoan banatutako 21 herrialdetan, emakumeak % 40 baino gehiago dira. Lorpenak lorpen, 21 estatutako parlamentuetan, oraindik ere, % 10 baino gutxiago dira emakumeak, eta hiru estatutan ez dago emakumezko ordezkariarik²⁴. Eskualdeka, Latinoamerika eta Karibeko parlamentuetan emakumeak % 36 dira; Europan eta Ipar Amerikan, % 33; Saharaz hegoaldeko Afrikan, % 27; Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Asian, % 23,5; Ozeanian, % 20; Ipar Afrikan eta Mendebaldeko Asian, % 19; eta Erdialdeko eta Hegoaldeko Asian, % 17,5.

Tokiko administrazioaren eremuan, 145 herrialdetan bildutako datuek erakusten dute tokiko deliberazio-organoetako kide hautetsien % 35,5 direla emakumeak; hau da, hiru milioi ordezkari baino gehiago guztira. Bi herrialdek bakarrik lortu dute % 50eko ordezkari-tza paritarioa, eta beste 26 herrialde % 40aren gainetik daude. 2024ko urtarrilean eskualdeen artean zeuden desberdintasunei dagokienez, Erdialdeko eta Hegoaldeko Asia daude buruan, (% 41), eta ondoren honako hauek datoz: Europa eta Ipar Amerika (% 37),

²³ <https://www.unwomen.org/es/articulos/datos-y-cifras/datos-y-cifras-liderazgo-y-participacion-politica-de-las-mujeres>

²⁴ Ibidem.



© Laura Lora

Ozeania eta Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Asia (% 31), Latinoamerika eta Karibe (% 29), Saharaz hegoaldeko Afrika (% 26) eta Ipar Afrika eta Mendebaldeko Asia (% 20).

Aurrerapen nabarmena ikusten den arren, politikagintzan genero-berdintasunak erronka ugari ditu oraindik, eta etengabeko ahaleginak egin behar dira ordezkaritza ekitatiboa lortzeko.

II.2. ODM 5: Principales retos en África.

Kontinenteko herrialde askotan, emakumeek ezin dituzte guztiz erabili beren eskubideak, eta ezin diote beren ahalmen guztia ekarri gizartearen garapenari, testuinguru sozioekonomiko, politiko eta kultural konplexua dela eta. 2030era iristeko bost urteren faltan, nekez lortuko dute Afrikako herrialde gehienek emakumeen parte-

hartze politikoari buruzko 5.5 helburuan ezarritako % 50a. Afrikako parlamentuetan, emakumeen ordezkartza % 1 baino ez da handitu: 2021ean % 25 ziren, eta 2024an, berriz, % 26²⁵.

Afrikako emakumeen partaidetza politikoari buruzko 2024ko barometroaren arabera, Afrikako 13.057 parlamentarien laurdenak baino ez dira emakumeak: % 26 parlamentuko behe-ganberetan eta % 21 goi-ganberetan²⁶.

Más allá de la situación política, también se ven afectados por las desigualdades los demás aspectos de la vida pública. La violencia sexual y de género, la mutilación genital, la violencia doméstica, el feminicidio y la falta de acceso de las niñas a la educación son moneda corriente en las comunidades africanas. El resurgimiento de los conflictos armados en algunos países africanos está socavando aún más la condición de las mujeres y minando los esfuerzos de resiliencia.

Sexu- eta genero-indarkeriak

Afrikan, emakume askok sufritzen dituzte oraindik genero-indarkeriak. Indarkeria horiek askotarikoak dira: etxeko indarkeriak, ezkontza goiztiarrak, emakumeen mutilazio genitalak, sexu-erasoak, giza salerosketa eta indarkeria psikologikoak. Maiz, faktore soziokulturalek larriagotu egiten dituzte indarkeria horiek: esaterako, arau patriarkalek, pobreak eta nesken hezkuntza-aukera eskasak.

Horri gatazka armatuak eta eskualde batzuetan dirauten krisi ekonomiko eta klimatikoak gaineratu behar zaizkio; izan ere, emakumeen kalteberatasuna larriagotzen eta indarkeria sufritzeko arriskua handitzen dute. Saharaz hegoaldeko Afrikan, 79 milioi emakume eta neska baino gehiago izan dira bortxaketan eta sexu-erasoen biktimak. Egutero, 140 emakume edo neska hiltzen dira bikotekideak edo gertuko senideren batek erailak, hau da, biktimak bat 10 minututik behin²⁷.

Gatazka armatu batzuetan, emakumeen gorputzak gerra-arma gisa erabiltzen dira. Torturatu, erail, eta erbesteratzen dituzte, beren hiri edo herrietatik urrun, inolako laguntzarik gabe. Kongoko Errepublika Demokratikoan 2025eko urtarrian izan ziren gatazka armatuetan, Goma eta Bukavu hirietan, AFC/M23 matxinadaren okupaziopean, segurtasun-egoeraren jarraipena egiteko gure lanean in situ jaso genituen testigantzek adierazi ziguten hogeita hamar bat emakume eta neska bortxatu zituztela gizon armatu batzuek. Biktimak horiek ez dute jaso osasun-arretarik edo laguntza psikosozialik, ez bakarrik laguntzeko egiturarik ez dutelako: egoera

²⁵ <https://www.idea.int/publications/catalogue/womens-political-participation-africa-barometer-2024>

²⁶ Ibidem

²⁷ UNODC & UN Women (2024), *Feminicides in 2023: Global Estimates of Intimate Partner/Family Member Feminicides*, Argzt.: Nazio Batuak.

salatuz gero errepresaliak sufritzearen beldur dira, halaber. Emakume eta neska asko bortxaketaren lesio larrien ondorioz hiltzen dira; beste batzuk, aldiz, trauma osteko estresaren ondorioz.

Erakunde humanitarioek salatu dute oso modu kezagarrian ugaritu direla bortxaketak eta sexu-indarkeriako kasuak Kongoko Errepublika Demokratikoko Ipar Kivu eta Hego Kivu probintzietan, 2025eko otsailean. Biktimek Amnistia Internazionalari esan ziotenez, M23ko gerlariek bortxatu eta heriotzaz mehatxatu zituzten. Emakume batek, testigantza ematean, azaldu zuen M23 taldeko soldaduek espioitzat hartu zutela. Uniforme militarra eta armak zeramatzaten bost gerlarik taldean bortxatu zuten. Beste kasu batean, Kongoko uniforme militarra zeramaten bi gizonak emakume haurdun bat bortxatu eta haren senarra bahitu zuten²⁸.

Emakumeen ahaluntze ekonomikoa

Afrikan emakumeak dira oraindik pobreenak, ez dutelako maileguak edo ondasun ekonomikoak lortzeko aukerarik, edo are lurra oinordetzan hartzekorik. Landa-eremuetan, familiek ordaindu gabeko eskulan gisa erabiltzen dituzte emakumeak. Arrazoi nagusiak askotarikoak dira: analfabetismo-tasa handiak, erabilera eta ohitura atzerakoi eta diskriminatzaileak, baliabideak lortzeko aukera mugatua, informazio-falta eta praktika patriarkalak. Sarritan, herrialdearen egitura ekonomiko orokorra erabat ezegonkortzen duten gatazka armatuak gehitu behar zaizkie horiei guztiei.

Hainbat urtez ekonomia erresilientea eraikitzea lortu ondoren, Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeak berriz bihurtu dira gerraren lasturen, arpilatzeen, lapurreten eta ondasun-galera erabatekoaren biktima. Garapenerako Afrikako Bankuaren kalkuluen arabera, emakumezko enpresari afrikarrek 42.000 milioi USDko birfinantzaketa-defizitari aurre egin behar diote enpresako balio-kate guztietan; besteak beste, 15.600 milioi USD nekazaritzan soilik²⁹.

2023an, ukaezina da klima, krisia eta gatazka direla nagusi. Nazio Batuen arabera, krisi hirukoitz horrek 75 milioi pertsona hondoratu ditu muturreko pobrezian 2020tik, eta haietako gehienak emakumeak dira. Ezer egin ezean, litekeena da 342 milioi emakume eta neska baino gehiago bizitzea 2030ean pobrezia-mugaren azpitik. Horrek argi uzten du premiazkoa dela berehala jardutea³⁰.

²⁸ <https://www.amnesty.org/fr/latest/news/2025/03/drc-m23s-rampant-human-rights-abuses-demand-concerted-international-action>

²⁹ <https://www.afdb.org/en/topics-and-sectors/initiatives-partnerships/afawa-affirmative-finance-action-for-women-in-africa/why-afawa>

³⁰ <https://unstats.un.org/sdgs/report/2022/goal-01/>

III. 5. GJHa: EGINDAKO AURRERABIDEA ETA ERRONKAK GAINDITZEKO ESTRATEGIA

III.1 Esparru juridiko eta instituzionala

Mundua, oro har, eta Afrika, bereziki, GJHetara iristetik urrun dauden arren, ahalegin handiak egin dira nazioarteko arlo juridikoan. Lege-tresna ugarik babesa ematen diete diskriminatzeko debekuari eta emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-forma oro desagerrarazteari, eta gizonezkoen eta emakumezkoen artean benetako berdintasuna izateko funtsezko printzipio batzuk ezartzen dituzte.

Esparru horretan egindako aurrerapauso nagusietako bat Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena da; 2000. urtean onartua, "Emakumea, Bakea eta Segurtasuna" agendari eman zion bide. Emakumeek bake-prozesuetan duten zeregina sustatzen du ebazpenak. Horrez gain, gatazka-egoeretan emakumeen aurkako indarkeria prebenitu behar dela azpimarratu, eta emakumeen ahalduntzea sustatzen du. Estatu ugarik beren gain hartu dituzte ebazpenaren ondoriozko konpromisoak, eta genero-berdintasuna bermatzeko ekintza-plan nazionaletan txertatu dute. Ondoren, haren irismena eguneratzen eta zabaltzen duten Nazio Batuen ebazpen gehigarriekin osatu dira.

Beste mugarri garrantzitsu bat *Pekingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma* da, zeina 1995ean onartu baitzen, Emakumeari buruzko Munduko Konferentzian. Dokumentu hori emakume guztientzat berdintasuna, garapena eta bakea bultzatzeko konpromiso global bat da, eta oraindik indarrean dagoen agenda eraldatzaile bat ezartzen du.

Giza eskubideen eremuan, *Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak* berebiziko tokia du. Nazio Batuen sorrera-printzipioak oinarrian, Konbentzioak emakumeen eskubide besterenezinak berresten ditu, eta ekintza-programa bat eskaintzen du, estatu alderdiek eskubide horiek benetan beteko direla ziurta dezaten³¹.

Giza eskubideen eremuan, Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak berebiziko tokia du. Nazio Batuen sorrera-printzipioak oinarrian, Konbentzioak emakumeen eskubide besterenezinak berresten ditu, eta ekintza-programa bat eskaintzen du, estatu alderdiek eskubide horiek benetan beteko direla ziurta dezaten³². Hala, Generoari eta Garapenari buruzko Hegoaldeko Afrikako Garapen Komunitatearen Protokoloak, 17. artikuluan, emakumeen ahalduntze ekonomikoa sustatzeko eskatzen die estatu kideei³³. Afrikako zenbait herrialdek, hala

³¹ <https://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/text/fconvention>

³² <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>

³³ <https://www.sadc.int/fr/pillars/women-economic-empowerment-programme>



© Laura Lora

nola Kongoko Errepublika Demokratikoak, aurrerapen handiak egin dituzte babesaren, partaidetza politikoaren eta genero-berdintasunaren arloko lege espezifikoak onartuz, gizarte zibileko emakume-erakundeen bultzadari esker, neurri handi batean. Kongoko Konstituzioaren 14. artikulua, adibidez, irmoki finkatzen du gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna, eta Afrikako beste estatu batzuek 5. GJHarekin bat datozen plan estrategiko nazionalak ezarri dituzte.

Hala ere, nazioartean, eskualdeetan eta estatuetan aurrerapen juridikoak egin badira ere, Afrikako emakumeen eta nesken egoerak argi uzten du oraindik bide luzea egin behar dela berdintasun erreal eta egiazkoa lortzeko.

III.2 Erronkak gainditzeko estrategia

Genero-berdintasuna erdiesteak zeharkako ikuspegia izatea eskatzen du, helburu hori politika publikoen, aurrekontuen eta erakunde nazionalen erdigunean jartzeko. Izan ere, 5. GJHa lortzeko, egiturazko erreformak eta inbertsio iraunkorrak egin beharko dira, eta oztopo sistemikoak gainditzeko aukera emango duen konpromiso politiko irmoa izan.

Funtsezko neurri bat esparru instituzionalak indartzea da. Horretarako, genero-berdintasuna helburu duten erakunde nazionalak sortu behar dira, eta baliabide eta autonomia nahikoak eta mandatu argi bat eman behar zaizkie. Erakunde horiek, gainera, jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eraginkorrak ezarri behar dituzte, aurrerapenak neurtu, arrakalak hauteman eta estrategiak doitzeko.

Hori bezain garrantzitsua da gizartearen mobilizazioa eta pentsamolde-aldaketa sustatzea. Emakumeen eskubideak defendatzen dituzten gizarte zibileko erakundeei babesa ematea, komunikabideak eraldaketa-eragile gisa inplikatzeko, eta eztabaida publikoan emakumeen parte-hartze aktiboa bermatzea: horiek funtsezko ekintzak dira.

Azkenik, nazioarteko lankidetzak berebiziko garrantzia du. Ezinbestekoa da Hegoaldeko herrialdeei laguntza finantzarioa eta teknikoa ematea, eta genero-berdintasuna garapen-politiketan eta laguntza humanitarioan txertatzen dela ziurtatzea. Gobernuen, nazioarteko erakundeen eta gizarte zibilaren arteko aliantzek berebiziko garrantzia dute ekintza global koordinatua eta eraginkorra izateko.

Genero-berdintasuna zeharkako helburua da, eta politika, aurrekontu eta erakunde nazionalen erdigunean egon behar du. Bultzada politiko estrategikoa, inbertsioa eta erreforma integralak beharrezkoak dira GJHak lortzea eragozten duten oztopo sistemikoak ezabatzeko.

IV. ONDORIOA

Inoiz baino premiazkoagoa da eragile guztiak mobilizatzea berdintasunezko etorkizun bat sustatzeko, non emakumeek eta neskek bete-betean gozatuko duten eskubideez eta gizartearen bizitzan parte hartuko duten. Genero-berdintasuna berezko helburu bat baino gehiago da: gainerako GJH guztiak lortzeko bitarteko bat ere bada. Ahalegin handiagoak egin behar dira Afrika osoko emakumeek hasitako bultzada globalari indarra emateko eta, hala, gizadi osoarentzako etorkizun bat eraikitzeko.

Gizartea kontzientziatu eta sentsibilizatu behar da, emakumeen aurkako diskriminazioa elikatzen jarraitzen duten arrazoi sakon guztiak behingoz desagerrarazteko, eta kontzientzia kolektibo, justizia eraginkor, politika irmo eta lankidetzaz zintzo baten bidez bakarrik lor daiteke hori.

Tokiko komunitateetan lan egiten duten oinarritzko erakundeei lagunduz eta emakume-sareak indartuz, lehentasuna emango zaio 2030 Agendari, GJHak, oro har, eta 5. GJHa, bereziki, ezagutzera emateko, eta, horrenbestez, gizadi osoarentzat garapen justu eta inklusiboagoa lortzeko.

7. GJHen lokalizazioaren erronkak, ingurumenaren ikuspegitik

Maximiliano Koch

2024ko Garapen Jasangarriaren Txostenak (Sachs, 2024) –aurrerantzean, 2024ko Txostena– erakusten duenez, ez gara nahikoa aurrerapauso egiten ari Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) lortu ahal izateko: 2030erako, jomugen % 16 bakarrik dago betetzeko bidean. Egoera horrek aurreko urteetako joera berresten du. Aurrerabidea desparekoa izan da eta, askotan, 2030 Agenda lortzeko eskasegia.

Emaitzetako desberdintasunak bereziki nabariak dira ingurumenarekin erlazionatutako GJHetan. Energia garbian eta uretako ekosistemen kontserbazioan aurrerapenak ikusten diren arren, oraindik erronka nabarmenak daude klima-aldaketa arintzeari eta biodibertsitatea babesteari dagokienez. Desparekotasun horrek agerira dakar zein konplexuak diren ingurumen-erronkak eta argi uzten du ikuspegi integratuagoak behar direla (Sachs, 2024).

Errealitate horren aurrean, Nazio Batuek (NB) GJHen lokalizazioa sustatzen dute; alegia, mundu osorako ezarritako helburuak komunitate bakoitzaren errealitate espezifikora egokitu nahi dituen estrategia bat. Lokalizatzeak esan nahi du estrategiak tokian-tokian definitu, inplementatu eta monitorizatzen direla, baina helburu eta jomuga global, nazional eta azpinazional jarraituz (NBGP, 2015). Horrela, tokian-tokian GJHen inplementazioa eta eraginkortasuna hobetu nahi da, aitorturik ezen tokiko gobernuak funtsezko eragileak direla garapen iraunkorra sustatzeko politikak formulatu eta gauzatzeko. Estrategia horrek askotariko eragileen parte-hartzea sustatzen du –besteak beste, enpresak, GKEak eta herritarrak–, guztion artean irtenbideak bilatzeko. Tokiko gobernuak oso garrantzi handia dute: ELGAren arabera, 169 jomugetatik gutxienez 105 ez dira lortuko tokiko eta eskualdeko gobernuen parte-hartzea eta haiekiko koordinazioa egokia ez bada (ELGA, 2020).

GJHen lokalizazioa ez da kontzeptu berria; aitzitik, agenda globalak toki bakoitzaren testuingurura egokitzeko aldeztu aurretik egindako esperientzia batzuetan oinarritzen da. Adibidez, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko 1992ko Adierazpenak eta



Milurteko Garapen Helburuek (MGH) jada sustatu zituzten deszentralizatzeko eta herritarrek parte hartzeko prozesuak, munduko erronkei tokian tokitik ekiteko. Hala ere, GJHak aurrerapauso bat dakartzate, modu holistikoagoan integratzen baitituzte garapen jasangarriaren alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak. Euskadik ondo erakusten du nazioz azpiko gobernuek nola gida dezaketen prozesu hori eta zer ekarpen egin dezaketen tokiko mailan GJHak lortzeko (Eusko Jaurlaritza 2018).

GJHen lokalizazioa bide onetik doan aurrerapauso bat da, baina ez du automatikoki bermatzen helburu globalak lortuko direnik. Estrategia horren atzean, premiazko arreta behar duten erronka batzuk daude. Krisi klimatiko eta sozialak gure sistema ekonomiko eta sozialak errotik aldatzea eskatzen du, tokiko ekintza isolatuetatik harago joanez. Lokalizazioak komunitate-mailako ekimenak sustatzen baditu ere, azalean geratzen da maiz, epe luzera jasangarritasuna bermatzeko beharrezko diren aldaketa sistemiko sakonei heldu gabe. Hurrengo ataletan, lokalizazioak ekar ditzakeen arazoetako batzuk aztertuko dira, ingurumen-alderdien ikuspegitik. Besteak beste, honako gai

hauek landuko dira: desoreka globalen areagotzea, garapenerako lankidetzafuntsen desbideratzea, eta mundu-mailako kausei arretarik ez jartzea.

1. Desoreka globalen areagotzea

Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) lokalizazio-politikak eskualde bakoitzeko errealitateetara egokitu nahi ditu helburuak. Hala ere, esperantzagarria izan arren, ekimen horrek hainbat erronka ditu aurrez aurre. Batetik, eskualde askotan, eta garapen-bidean dauden herrialdeetan bereziki, ahulak dira tokiko erakundeak eta gobernantza-sistemak. Ahulezia hori dela medio, tokiko gobernuek gaitasun mugatua dute politika publiko eraginkorrak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko. Gainera, tokiko gobernuen finantza-



autonomia ere mugatua izan ohi da, aurrekontu nazionalen mende baitaude neurri handi batean. Mendekotasun horrek tokiko agintarien ekintza-ahalmena baldintzatzen du, eta zaildu egiten du tokiko beharretara egokitutako politika berritzaileen ezarpena.

Beste erronka garrantzitsu bat da eskualde askotan ez dagoela monitorizazio- eta ebaluazio-mekanismoak. GJHak lortzeko bidean zenbat aurreratu den neurtzeko sistema egokirik gabe, zaila da identifikatzea zein ekintza diren eraginkorrak eta zein doitu beharrekoak. Horrek ikasteko eta egokitzeko gaitasuna mugatzen du, eta baliabideak eraginkortasunik gabe esleitzera eraman dezake.

Horren ondorioz, baliteke GJHen lokalizazioak eremu geografiko batzuen arteko desberdintasunak areagotzea. Institutuzio ahulak, autonomia finantzario txikia eta monitorizazio-sistema eskasak dituzten eskualdeek erronka handiagoak dituzte GJHak ezartzeko, finantzaketa eta ezagutzak lortzeko eta herritarrek parte hartzeko mugak direla bide. Ondorioz, litekeena da eskualde horiek atzean geratzea. Dauden desberdintasunak betikotzeaz gain, garapen jasangarri ekitatiborantz aurrera egitea zailduko luke horrek.

GJHen inplementazio eraginkorra bermatzeko, funtsezkoa da tokiko erakundeak eta gobernantza-sistemak indartzea, tokiko gobernuen autonomia finantzarioa handitzea eta monitorizazio- eta ebaluazio-sistema sendoak garatzea. Hala, tokiko komunitateek politika publikoak diseinatzeko eta ezartzeko kontrol handiagoa izango dute, eta eraginkortasun handiagoz erantzun ahal izango diete beren behar espezifikoak. Gainera, mekanismo sendoak ezarri behar dira eskualde ahulenei finantzaketa eta laguntza emateko, herrialde guztiek, haien garapen-maila edozein dela ere, aukera berdinak izan ditzaten 2030 Agendaren helburuak lortu eta guztiontzako etorkizun jasangarria eraikitzeko.

2. Garapenerako lankidetzan funtsak berresleitzea

Asmo onekoa izanagatik ere, baliteke GJHen lokalizazio-politikak garapenerako lankidetzafuntsak desbideratzea, eskualde aberatsenetan tokiko helburuak bete daitezen, garapen-bidean dauden herrialdeen kaltetan. Milurteko Garapen Helburuek (MGH) ez bezala – horiek herrialde behartsuenen erronka espezifikoak aurre egiteko diseinatuta baitzeuden –, GJHek herrialde guztiek lortu beharreko helburu globalak ezartzen dituzte. Aldaketa hori onargarria izan arren, gerta liteke eskualde kalteberen garapena sustatzeko baliabideak berresleitzea, herrialde garatuagoetan tokiko helburuak betetze aldera.

Eskualde horietako askok dagoeneko finantza-mugak dituztenez, funtsen berresleipenak haien egoera larriagotu lezake eta, ondorioz, klima-aldaketaren aurkako politika eraginkorren ezarpena eragotzi eta garapen-praktika jasanezinak sustatu. Jasangarritasunaren arloko aurrerapenak mantsotzeaz gain, baliabideak beharrezko ingurumen-kontrolik gabe ustiatzera bultzatu lezake horrek, eta ingurumen-babeseko helburu orokorrak ahuldu.

Lokalizazio-politika benetan eraginkorra izan dadin, funtsezkoa da finantzaketa-mekanismoak ezartzea, GJHak eskualde guztien artean ekitatez inplementatzen direla bermatzeko, batez ere, baliabide mugatuak dituzten eskualdeetan. Mekanismo horiek gabe, eskualdeen artean desberdintasun are handiagoak sortzeko arriskua dago. Hala, eskualde horietako batzuek, baliabide gehiago izanik, ingurumen-arloko GJHak lortuko lituzkete, baina gehienak atzean geratuko lirateke. Horrek, desberdintasunak betikotzeaz gain, 2030 Agenda mundu osoan betetzea ere arriskuan jar lezake.

3. Herrialde garatuen inpaktu negatiboak: GJHak betetzeko oztopo bat

GJHen lokalizazioak bultzada handia eman dio eskualdeko edo nazioz azpiko ekintzari. Hala ere, ekimen horrekin batera, munduko gobernantza eraginkorragoa behar da, mugaz gaindiko erronkei heldu ahal izateko. Inpaktu globalak edo spillovers delakoak neurtzen dituzten sailkapenek errealitate konplexua erakusten dute: jasangarritasun orokorrari dagokionez, zerrenden buruan ez daude Europako herrialdeak, garapen-maila txikiena dutenak baizik. Horrela, herrialdeen kanpo-efektuak neurtzean, Polonia da Europako lehen herrialdea (sailkapenaren 120. postuan), eta Finlandia, berriz, 139. postuan dago, 2030 Agendaren helburuak eta jomugak betetzeari dagokionez zerrendako burua izan arren. Sierra Leona, 131.a Agendaren betetze-mailari dagokionez, lehena da



inpaktu globalen zerrendan. Sailkapen alderantzikatu horrek agerian uzten du modu integralagoan ebaluatu behar direla GJHak, eskualde eta nazioen lorpenetatik harago joanez eta mugaz haraindiko ondorioak kontuan hartuz. Alderdi hori 17. GJHak hartzen du barne.

Adierazi izan da herrialde garatuen barne-kontsumoaren maila handiari zor zaizkiola, nagusiki, kanpo-efektu negatiboen maila handiak. Badirudi horrek zuzeneko eragina duela nazioarteko merkataritzako eragiketetan (Fuller 2024). Espainia, adibidez, 134. postuan dago inpaktuen sailkapenean (Sachs 2024); izan ere, bere esportazioetan pestizida arriskutsuak daude, eta inportazioek, berriz, ur urriaren kontsumoa, airearen eta itsasoaren kutsadura, berotegi-efektuko gasen isurketa eta deforestazioa areagotzen dituzte. Datu horiek agerian uzten dute premiazkoa dela gure aztarna ekologikoa txikitzeko eta kontsumo jasangarriagoa sustatzeko neurriak ezartzea.

GJHen lokalizazioak muga esanguratsuak gainditu behar ditu kanpo-efektu negatiboen arazoari aurre egiteko. Lehenik eta behin, tokiko gobernuek ez dute monitorizazio-tresna egokirik izaten beren politikek beren mugez harago zer inpaktu sortzen duten neurtzeko; adibidez, mugaz gaindi zenbat kutsatzen duten edo beste eskualde batzuetako baliabide naturalak nola ustiatzen dituzten. Gainera, haien programak tokiko xedeak lortzera



bideratuta daude, eta ez dute izaten beste eskualde edo herrialde batzuetan eragin litezkeen inpaktu kaltegarriak murrizteko politikarik.

GJHen lokalizazioa funtsezkoa da 2030 Agendaren helburuak lortzeko, baina ikuspegi zabalagoa izan behar du, mugaz gaindiko inpaktuak eta helburuen arteko lotura kontuan hartu behar dituelarik. Alabaina, ekimen horrek hainbat erronka ditu aurrez aurre, hala nola finantzaketarik eza, erakundeen ahultasuna eta desberdintasunak baliabideak eskuratzeko orduan. Komunitate baztertuak, bereziki, bigarren maila batean geratu ohi dira GJHak ezartzeko prozesuan, eta litekeena da horrek lehendik dauden desberdintasunak areagotzea.

Muga horiek gainditzeko, gobernu-maila desberdinen eta estatukoak ez diren eragileen arteko lankidetzak indartu behar da. Mugaz gaindiko lankidetzak mekanismoak sortzea, inpaktu globalak neurtzeko adierazle komunak garatzea eta teknologia garbietan inbertitzea dira funtsezko ekintzetako batzuk. Gainera, ezinbestekoa da tokiko gobernuen gaitasun instituzionalak indartzea, herritarren parte-hartzea sustatzea eta aliantza publiko-pribatuak sustatzea.

GJHen lokalizazioak gure gizarteak eraldatzeko eta etorkizun jasangarria eraikitzeak aukera paregabea eskaintzen du. Hala ere, potentzial horri etekin ahalik eta handiena ateratzeko, dauden erronkei heldu eta inor atzean geratzen ez dela bermatu behar da

Bibliografia

Fuller, G. and Bermont-Diaz L. (2024). International Spillover Effects and Germany: An analysis of Germany's performance on spillovers and the policy options to manage them. Paris: SDSN, 2024.

Sachs, J., Lafortune, G., Cattaneo, O., Fabregas, A., (2023). The Case for Long-Term SDG Financing. SDSN Reflection Paper. Paris: France.

Sachs, J.D., Lafortune, G., Fuller, G. (2024). The SDGs and the UN Summit of the Future. Sustainable Development Report 2024. Paris: SDSN, Dublin: Dublin University Press.

The UN Development Program (UNEP), UN-Habitat and United Cities and Local Governments (UCLG), Localizing the Post-2015 Development Agenda. Dialogues on implementation. En: https://www.uclg.org/sites/default/files/dialogues_on_localizing_the_post-2015_development_agenda.pdf (24/08/20an kontsultatua).

8. Bizitzaren jasangarritasuna: nola egin inor atzean ez uzteko?

Luiz Felipe Lacerda

Testu honetan, Hegoalde Globalaren ikuspegitik hausnartuko dugu bizitza duin baten jasangarritasunerako elementu nagusiei buruz eta Garapen Jasangarriko Helburuekin daukaten loturari buruz. Benetako parte-hartze sozial baten bitartez, inor atzean utzi nahi ez duen proposamen bat finkatzeko erronkari ekingo diogu, eta, azkenean, ikusiko dugu gizakiaren osoko ikuspegia funtsezkoa dela jasangarritasun horretarako, eta historikoki gure gizarteak egituratzen dituzten bidegabekeriak jakitun izan behar dugula.

1. Zer balio edo alderdi dira bizitzaren oinarri gure garaikidetasunean?

Modernitatea ulertzeko funtsezko galdera da hori. Oro har, ondasunak eskuratzeari, alderdi materialei eta ondare finantzarioei lotutako bizi-balioak duintasunaren sinonimotzat hartzeko joera dago. Era berean, merkantilismoaren, utilitarismoaren eta kontsumismoaren nagusitasuna salatuz, zenbait herri eta talderen munduko liderrek –Frantzisko aita santua tartean– adierazi dute desberdintasunak areagotzen dituen bizimodu horrek Natura agortzera eta giza duintasuna murriztera eraman gaituela.

Ikuspegi horretatik, bizitza duinaren oinarri diren balioak birpentsatu behar ditugu, ez baita nahikoa bizirik egotea: duintasuna ere eduki behar da. Hego Amerikako jatorrizko herriek eta egungo ereduak salatzen dituzten gainerako pentsamendu-korronteei entzunda, ohartzen gara gizakia osotasun gisa hautematea dela bizitza duin bati eusteko modu bakarra.

Osoko ikuspegi horrek modernitatean zehar eraikitako ikuspegiaren paradigma hausten du, zeina dikotomia faltsuetan oinarritzen baita, adimena eta gorputza, gorputza eta espiritua, eta gizarte eta natura banatuz. Gizakiaren osoko ikuspegiaren arabera, elkarri lotuta dago dena eta, hain zuzen ere, izaki bio-psiko-sozio-espiritualak gara. Ikusker hori Andeetako eta Amazoniako kosmologia amerindiarretatik sortu zen, eta bizimodu onaren ideiarekin zerikusia du –kitxuaz Sumak Kawsay edo guaranieraz Teko



Porã deritzona-. Sustatzen dituzten balioen artean, elkartasuna, ekitatea, lankidetza, planetan bizi diren izakien arteko elkarrekikotasun begirunetsua eta naturaren merkantilizaziorik eza daude.

Zer baliotan oinarritzen dira gure gizarteetan bizitzaren jasangarritasuna bermatu nahi duten politika publikoak?

Latinoamerikan, oro har, hiru zutabe handi daude bizitza duinaren jasangarritasuna mehatxatzen duten fenomeno oinarrian, eta gure gizarteetan armazoiak bera osatzen dute: arrazismoa, sexismoa eta lurraren edo jabetza pribatuaren kontzentrazioa. Bizitza duin baten jasangarritasuna helburu dugunontzat, hau da ezinbesteko galdera: Gure ekintzek eta proiektuek tentsiorik eragiten al dute hiru zutabe horietakoren baten gainean?

2- Duintasun globala bilatzeko proposamen bat

2015ean, 193 nazioz osatutako Nazio Batuen Batzar Nagusiak mundu osorako helburu batzuk zehaztu zituen, “munduan inor ez dadin atzean geratu”, lau dimentsio nagusitan oinarrituta: gizartea, ingurumena, ekonomia eta erakundeak. Dimentsio horietatik abiatuta, 17 helburu eta elkarri lotutako 169 jomuga zehaztu ziren, 2030erako lortu beharrekoak (2030 Agenda). Agendak zenbait gomendio egiten dizkie erakundeei, enpresei, gobernuei, tokiko komunitateei eta, oro har, gizarte zibilar, aliantzak eta inplementaziorako bitartekoak bilatuz helburu hauek lortzeko: pobrezia eta gosearen amaiera, nekazaritza jasangarria, osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza, genero-berdintasuna, ur garbia eta saneamendua, energia garbia eta eskuragarria, lan duina eta hazkunde ekonomikoa, azpiegitura erresiliente, inklusibo eta jasangarria eraikitzea, desberdinkeria murriztea, hirien eraldaketa jasangarria, ekoizpen arduratsua, klima-aldaketa globalaren aurkako ekintzak, uraren eta lurreko bizitza babestea, bakea sustatzea, eta justizia eta erakunde eraginkorrak izatea.

Beraz, arestian zerrendatuta dago zein diren, nazioek adostutakoaren arabera, bizitzak jasangarritasuna izateko hobetu beharreko alderdiak. Hori da gure abiapuntua. Baina, ia 15 urteren ondoren, gertatu al da hori?

Nahiz eta 17 helburuek kontuan hartzen dituzten gizakiaren osoko ikuspegia osatzen duten dimentsio gehienak (gizartea, ingurumena eta ekonomia), GJHeK muturreko zaurgarritasun-egoeran dauden elementuak dikotimizatzen dituzte oraindik. Gaur egun, adibidez, kategoria desberdinetan bereizi ahal daitezke gizartearen eta ingurumenaren arloko adierazleak?

Akats metodologiko horrez gain, uste dugu 2030 Agendak ez duela proposatzen balio-aldaketarik bizitza duina bermatzeko bidean. Egia da giza eskubideen eta eskubide unibertsalen bermean oinarritzen dela, baina matrize indibidualista batean jarduten du oraindik, eta oso gutxi aipatzen dira kolektibitatea eta beste kultura batzuetako jakintza eta teknologia sozialak, bestelako balio batzuk eskain ditzaketenak, merkatuaren hegemoniaren, kontsumoaren, hazkundearen eta indibidualismoaren orde.

Gainera, eguneroko errealitatean, ikusten dugu gizarte zibilak zailtasun handiak dituela GJHen plangintzan, ezarpenean eta ebaluazioan parte hartzeko. Nazio Batuei lotutako erakundeei nagusiki nazioarteko finantzaketa lortzeko erlazionatu nahi duten enpresa eta gobernuen erantzukizunpean geratu dira ekintza horiek, askoz gehiago.

Jatorrizko herri, gizarte-mugimendu eta gizarte-erakundeon iritziz, gero eta sinesgarritasun eskasagoa dute “jasangarria”, “berdea”, “garbia” eta gisako terminoez lagunduta iristen diren ekintzek. Egiaz, gizakien eta gizaki ez direnen bizitza merkantilizatzen duten erauzketa-praktika historiko eta degradatzaile berberak dira, baina, gaur egun, ardura sozioanbientalez mozorrotuak. Horrek esan nahi du, sarri, irtenbide klimatiko faltsu gisa

etiketatzen direla 2030 Agendari lotutako proiektuak, edo, baita ere, Klimaren aldeko Alderdien Konferentziatik eta klimari buruzko beste eztabaidagune batzuetatik sortzen diren akordioei lotutakoak.

Proposamen horiei begiratzen diegunean, galdera hauek egin behar ditugu: Zer balio dituzte garapen jasangarriari buruz adostu ditugun ideiek? Bizitza duina bermatzeko gai al dira balio horiek?

Brasilen, adibidez, gizarte zibilak 2030 Agendari egindako 2022ko ebaluazioan emaitza hauek atera dira: 102 xedetan (%60,35) atzerapausoak eman dira, 14 (%8,28) mehatxupear daude, 16 (%9,46) geldi daude aurreko aldiarekin konparatuz gero, eta 29tan (%17,1) aurrerapena eskasa izan da.

Egoera hori, hein batean, eskuin muturreko gobernuaren kudeaketa federalari leporatzen zaio; izan ere, klima-aldaketa ukatu, eta maiz ingurumenaren eta giza eskubideen aurka egiten duten sektoreei laguntzen die. Aipatu behar da eskuin mutur negazionista eta bortitz horren fenomenoak ez dela Brasilen bakarrik gertatzen: ikusi da munduko lurralde guztietan egin duela aurrera. Testuinguru horretan, ezinbestean galdetu behar da zer proiektu politikok eskaintzen duen bizitzaren jasangarritasuna duintasunez.

Tamalez, gizarte zibilak hainbat herrialdetan egindako 2030 Agendaren ezarpenaren jarraipen-txostenek, oro har, agerian utzi dute sei urteren faltan beren helburuak lortzetik urrun daudela adierazle gehienak.

3- Paradigma berri bat: inor atzean ez uztea.

Hausnarketa labur honen hasieran adierazi dugun bezala, gure bizimoduen eta ekoizpen-moldeen oinarrian dauden balioen paradigmarekin benetan hausten ez dugun bitartean, borrokan jarraitu beharko dugu, bizitza duin baten jasangarritasuna bideraezin bihurtzen duten desberdintasunen eta bidegabekerien gaitzen aurka.

Esan bezala, badirudi dikotomia faltsuak gainditzea dela lehen urratsa bizitzari modu osoagoan begiratzen hasteko. Ikuspegi sozioanbientala ariketa horren adibide bat da, gizartearen eta ingurumenaren arteko bereizketa faltsua gainditzearen alde egiten baitu.

Baina, guztiaren arteko loturaren premisatik harago, ulertu behar da bidegabekeriek bihurtzen dutela bizitza jasanezin, eta, horretarako, osotasun hori aintzat hartuko duen justizia-ikuspegia eraiki behar dela. Gure azterlanetan, hiru alderditan egituratutako matrize bat garatu dugu justizia kontzeptuarentzat: bidezko harremanak ezartzea norberarekin, bidezko harremanak ezartzea besteekin, eta bidezko harremanak ezartzea naturarekin.

Horrela sortu genuen justizia sozioanbientalaren ideia –ekologia integralaren operatibo politiko bat– desberdinkeriaz betetako gizarte batean bizitza duinari eusteko.

Gure ekintzek, politikek eta proiektuek erantzun aproposa ematen al diete justiziaren hiru dimentsio horiei?

Azkenik, Garapen Jasangarriko Helburuak aplikagarriak eta eraginkorrak diren eta bizitza duinaren jasangarritasunarekin zer erlazio duten begiratzen badugu, hausnartu behar dugu zer proposamen politiko eta ekonomiko babesten diren, eta ea proposamen horiek praktikan lagungarriak diren gure gizarteetan desberdintasunak eta bidegabekeriak egituratzen dituzten zutabeak gainditzeko.

BibliograFla

Laudato Si' entziklika (2015).

Marco de Orientación para el Estudio y el Trabajo en Ecología Integral (2022).


Ecología Integral y Metas del Milenio: Repensar el Oikos Global desde el Cuidado Y La Responsabilidad (2020).

Ecología Integral, Justicia Socioambiental y Bienestar (2022)

Evaluación y seguimiento a nivel mundial de la implementación de la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible (2017).

Desarrollo sostenible y Agenda 2030: un análisis de los indicadores brasileños (2022).

VII Informe Luz de la Sociedad Civil: Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible - Brasil (2023).





www.alboan.org www.euskaditikmundura.eus

 **Deusto**

hurbilketa kritikoa
Euskadiko 2030 Agendara

**Euskaditik
Mundura**

una aproximación crítica
a la Agenda 2030 vasca

 **alboan**
ONG · JESUITA · FUNDAZIOA